# INTERBIAKEK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK

# 2022



Bizkaia
interbiak




# INTERBIAKEK KUDEATZEN DITUEN AZPIEGITUREN KUDEAKETA- ETA TRAFIKO-DATUAK, 2022. URTEA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari atxikitako INTERBIAK foru-sozietate publikoak argitalpen hau aurkezten du berriro ere. Argitalpen honetan, bada, A-8 autobideak, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak eta Artxandako Tunelek osatzen duten azpiegituretako trafikoaren bilakaera eta sistemaren beraren kudeaketa aztertuko dira.

Eraldaketa etengabean den mundu honetan, non teknologiak eta berrikuntzak eguneroko bizitzaren txoko guzti-guztiak hartzen baitituzte, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila abangoardian dago. Parez pare dauzkagu erronka digitalak eta ingurumenaren arlokoak, eta herritarren –bereziki, gure azpiegiturak erabiltzen dituztenen– zerbitzura egongo den berrikuntza dugu ardatz.

Ikuspegi berritzaile horrekin, baliabideak optimizatu, gure zerbitzuen kalitatea hobetu, eta bide-segurtasuna areagotuko ditugu. Testuinguru horretan, irmo jarraitzen dugu “Bizkaiko Bide-azpiegituretako 2020-2023ko Berrikuntza Planarekin”. Amaitzeko zorian dagoela, Planak 69 proiektu dauzka jada abian, errepideen foru-sarea modernizatzeko. Askotariko arloak esploratzen ari gara; hala nola, adimendun garraioa, sateliteen erabilera eta ekonomia zirkularra.

Harro esan nahi dugu berrikuntzak txertatu dizkiegula 2022an lizitatutako 14 kontraturi: herritarrentzako zerbitzua indartzeko 30 klausula espezifiko sartu ditugu.

Digitalizazio-proiektu batzuk errealitatea dira dagoeneko. Bizkaiko bidesariaren hiru azpiegituretan, kudeaketa-sistemak eguneratu eta bateratu ditugu. Orain, bide gehienetan ordaindu daiteke kontakturik gabeko txartelekin eta gailu mugikorrekin; horrela, kobrantza eraginkorragoa da, eta ordainlekuetan iruzurra murrizten da. Gainera, Artxandako Tuneletan hesirik gabeko ordainketa-sistema duten bi errei jarri ditugu alboetan, free flow teknologia erabiliz. Ibilgailuen fluxua optimizatzea eta segurtasuna indartzea da sistema horren helburua, eta arrakasta handiz ezarri da Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak AP-68 autobidearekin duen loturan.

Aribidean diren lanek programatutakoaren arabera jarraitzen dute. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen bigarren fasea, zeina giltzarria baita Bizkaia goi-lautadarekin lotzeko eta ezinbestekoa salgaiak garraiatzeko, 2023ko apirilaren 5ean amaitu zen: Santurtzitik AP-68 autobiderako loturaraino (Beteluri) doazen hemeretzi kilometro dira, eta lurraldeko ekoizpen-zentro handiak lotzen dituzte.

Halaber, bistakoa da ingurumenarekin erantzukizuna eta konpromisoa ditugula. Mugikortasun jasangarria sustatzen dugu; jarduketa eta obra guztietan ezartzen ditugu ekonomia zirkularreko praktikak, eta ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak jarri ditugu Peñaskaleko, lurretako eta Artxandako kontrolguneetan. Bestalde, % 25era arteko deskontuak eskaintzen dizkiegu ibilgailu elektronikoei

bidesarietan, etorkizun garbiago batekin dugun konpromisoa berresteko.

Azkenik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet gure errepideetan bikaintasuna eta segurtasuna bermatze aldera egunero-egunero lan egiten dutenei. Elkarrekin, Bizkai oparo eta jasangarriagoa eraikiko dugu.

**Imanol Pradales Gil**
Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru-diputatua
Interbiak SAko presidentea

# Aurkibidea

**1 Azpiegituren trazaduraren eta ordainketa-sistemaren deskribapena ........................2**

**1.1 LOTURAK, TARTEAK ETA LUZERAK .................................................................................. 2**

1.1.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ............................................... 2

1.1.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ................................................................ 6

1.1.3 ARTXANDAKO TUNELAK........................................................................................................ 8

**1.2 BIDESARIA KONTROLATZEKO SISTEMA .................................................................... 10**

1.2.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ............................................. 10

1.2.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA .............................................................. 10

1.2.3 ARTXANDAKO TUNELAK...................................................................................................... 10

**2 Azpiegiturek Bizkaiko lurraldearen garapenean duten eragin sozioekonomikoaren azterketa ................................................................................................................11**

**2.1 DEMOGRAFIA ETA LURRALDE-ANTOLAKETA ............................................................ 12**

2.1.1 BILAKAERA HISTORIKOA ..................................................................................................... 12

2.1.2 2022KO ANALISI DEMOGRAFIKOA ...................................................................................... 14

2.1.3 EGUNEROKO JOAN-ETORRIAK............................................................................................ 15

**2.2 EGOITZA-MUGIKORTASUNA ........................................................................................ 16**

**2.3 ENPRESA-DEMOGRAFIA ............................................................................................... 18**

**2.4 JOAN-ETORRIETAKO SEGURTASUNA ......................................................................... 21**

2.4.1 BIDE-SAREKO ISTRIPU-TASAREN ANALISIA ..................................................................... 22

**3 Mugikortasunaren eta trafikoaren bilakaeraren analisia .........................................24**

**3.1 TRAFIKOA ETA TARTEEN ARABERAKO BANAKETA. 2022. URTEA........................................ 24**

3.1.1. HAZTATURIKO BATEZ BESTEKO INTENTSITATEA. IBILGAILU MOTAREN ARABERAKO OSAKETA 24

3.1.2 TRAFIKOAK TARTEEN ETA LOTURA-ADARREN ARABERA DUEN BANAKETA ................ 28

3.1.3 TRAFIKOAREN HILEKO ALDAKUNTZA................................................................................ 41

3.1.4 TRAFIKOAREN EGUNEKO ALDAKETA OHIKO ASTE BATEAN .......................................... 53

3.1.5 TRAFIKOAREN ORDU-BANAKETA........................................................................................ 64

**3.2 BARRUKO MATRIZEA URTEKO OHIKO EGUNEAN ...................................................... 71**

3.2.1 LOTUREN ARTEKO TRAFIKOA. TRAFIKO MOTA ETA MUGIKORTASUNA......................... 71

3.2.2 HESIETAN KONTROLATURIKO ERLAZIOAK (ORDAINPEKO IBILBIDEAK). BILAKAERA. .. 75

**3.3 TRAFIKOAREN BILAKAERA ........................................................................................... 83**

3.3.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA. 2017-2022 EPEALDIA ......... 83

3.3.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. 2017-2022 ALDIA ................................. 91

3.3.3 ARTXANDAKO TUNELAK. 2017 – 2022 aldia......................................................................... 97

**3.4 TRAFIKOAREN ERAKARPENA, KORRIDOREAREN GUZTIZKOARI ETA BILAKAERARI ERREFERENTZIA EGINEZ ... 99**

3.4.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ... 99

3.4.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ... 104

3.4.3 ARTXANDAKO TUNELAK ... 110

**3.5 ERLETXEKO LOTURAREN ETA TXORIERRIKO KORRIDOREAREN BIDEZKO ERLAZIOAK .. 112**

**3.6 ZERBITZU-MAILEN AZTERKETA ... 113**

3.6.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ... 113

3.6.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ... 116

3.6.3 ARTXANDAKO TUNELAK ... 118

**4 Egindako eta aurreikusitako jarduketen eragina ... 121**

**4.1 EGINDAKO JARDUKETAK ... 121**

4.1.1 ERMUKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEA IREKITZEA ... 122

**4.2 ARIBIDEKO ETA AURREIKUSITAKO JARDUKETAK ... 123**

4.2.1 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. 1B FASEA ... 123

4.2.2 IBAI AZPIKO TUNELA ERAIKITZEKO PROIEKTUA ... 123

**5 Erabiltzailearentzako arreta ... 124**

**5.1 BEZEROARI ESKAINITAKO KOMUNIKAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZUA ... 125**

5.1.1 DIRULAGUNTZAK ETA DESKONTUAK ... 125

5.1.2 KONTSULTAK ... 128

5.1.3 ERREKLAMAZIOAK ... 130

**5.2 ERABILTZAILEEI AUTOBIDEAN LAGUNTZEKO ZERBITZUA ... 133**

5.2.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ... 133

5.2.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ... 134

5.2.3 ARTXANDAKO TUNELAK ... 134

**5.3 ZERBITZUAREN KALITATEA. ERABILTZAILEEN IRITZIA ... 135**

5.3.1 HELBURUAK ETA ERABILITATEKO METODOLOGIA ... 135

5.3.2 AZTERLANAREN ONDORIOAK ... 135

**6 Trafiko-istripuak ... 136**

**6.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ... 136**

6.1.1 ISTRIPU- ETA BIKTIMA-KOPURUA. BILAKAERA ... 136

6.1.2 ISTRIPU-KOPURUA, TARTEEN ARABERA ... 137

6.1.3 ISTRIPUAK HILABETEEN ARABERA ... 139

6.1.4 ISTRIPUEI BURUZKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK ... 140

6.1.5 2022AN IZANDAKO ISTRIPUEI BURUZKO BESTE DATU BATZUK ... 142

**6.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ... 147**

6.2.1 ISTRIPU- ETA BIKTIMA-KOPURUA. BILAKAERA ... 147

6.2.2 ISTRIPU-KOPURUA, TARTEEN ARABERA ... 147

6.2.3 ISTRIPUAK HILABETEEN ARABERA ........ 148
6.2.4 ISTRIPUEI BURUZKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK ........ 149
6.2.5 2022AN IZANDAKO ISTRIPUEI BURUZKO BESTE DATU BATZUK ........ 151

**6.3 ARTXANDAKO TUNELAK ........ 154**

**7 Fakturazioaren banaketa, erabilitako ordainbideen arabera ........ 155**

**7.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA ........ 155**
**7.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA ........ 156**
**7.3 ARTXANDAKO TUNELAK ........ 157**

# Grafikoen aurkibidea

1.1.1-a Mapa ........ 5
1.1.2-a Mapa ........ 7
1.1.3-a Mapa ........ 9
2.1.1-a Mapa ........ 14
3.1.2-a Mapa ........ 30
3.1.2-a Mapa ........ 34
3.1.2.-c Grafikoa ........ 39
3.3.1.-a Grafikoa ........ 84
3.4.1.-a Grafikoa ........ 100
3.4.2.-a Grafikoa ........ 105

# Taulen aurkibidea

2.1.2.a Taula. ........ 15
2.1.3.a Taula. ........ 18
2.1.3.b Taula. ........ 19
2.4.1.a Taula. ........ 22
2.4.1.b Taula. ........ 23
3.1.2.a Taula. ........ 31
3.1.2.b Taula. ........ 32
3.1.2.c Taula. ........ 35
3.1.2.d Taula. ........ 37
3.1.2.e Taula. ........ 39
3.1.3.a Taula. ........ 41
3.1.3.b Taula. ........ 43
3.1.3.c Taula. ........ 44
3.1.3.d Taula. ........ 45
3.1.3.e Taula. ........ 46
3.1.3.f Taula. ........ 49
3.1.3.g Taula. ........ 51
3.1.4.a Taula. ........ 53
3.1.4.c Taula. ........ 56
3.1.4.d Taula. ........ 57
3.1.4.e Taula. ........ 58
3.1.4.f Taula. ........ 59
3.1.4.g Taula. ........ 60

3.1.4.h Taula. ........ 62
3.1.4.i Taula. ........ 63
3.2.1.a Taula. ........ 71
3.2.1.b Taula. ........ 72
3.2.1.c Taula........ 72
3.2.1.d Taula. ........ 73
3.3.1.a Taula. ........ 90
3.3.2.a Taula. ........ 96
3.4.1.a Taula. ........ 99
3.4.1.b Taula. ........ 102
3.4.1.c Taula........ 102
3.4.1.d Taula. ........ 103
3.4.2.a Taula. ........ 104
3.4.2.b Taula. ........ 107
3.4.2.c Taula........ 108
3.4.3.a Taula. ........ 112
3.6.1.a Taula. ........ 114
3.6.1.b Taula. ........ 114
3.6.1.c Taula........ 115
3.6.2.a Taula. ........ 117
3.6.3.a Taula. ........ 119
3.6.3.b Taula. ........ 120
5.1.1.a Taula. ........ 126
5.1.1.b Taula. ........ 127
5.1.1.c Taula........ 127
6.1.2.a Taula. ........ 138
6.1.2.b Taula. ........ 138
6.1.2.c Taula........ 139
6.1.4.a Taula. ........ 140
6.1.4.b Taula. ........ 141
6.1.5.d Taula ........ 142
6.2.2.a Taula. ........ 147
6.2.2.b Taula. ........ 148
6.2.2.c Taula........ 148
6.2.4.a Taula. ........ 150
6.2.4.b Taula. ........ 150



# Sarrera: xedea eta planteamendua

2003. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu zituen AP-8 autobidearen titulartasuna eta kudeaketa, autobideak Bizkaiko lurralde historikoa zeharkatzen duen tartean, INTERBIAK sozietate publikoaren bitartez. Orduz geroztik, jarduketa ugari egin dira, Bizkaiko mapa osatzen duten eskualde batzuen eta besteen arteko egituraketa, irisgarritasuna eta komunikazioa hobetzeko.

2011. urtean Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea trafikorako ireki izanak konponbidea ekarri zion Bilboko Metropoliaren Eremuko mugikortasunak azken urteotan jasan duen gehikuntzari.

2012. urtean Iurretako loturaren eta Lebario auzoaren arteko tartean hirugarren erreia zabaldu zen, eta Abadiñoko lotura zerbitzuan jarri. Horrenbestez, AP-8 autobidearen irisgarritasunaren hobekuntzak bultzada berria izan du.

2015. urtean, Bermeoko Saihesbidea hasi zen martxan; 2016an, Geregiaga eta Elorrio arteko autobide berria, eta, 2018an, Ermuko Hegoaldeko Saihesbidea. Bada, hiru jarduketa horiek beren eskualdeen garapen ekonomikoa erraztu, eta inguruko bide-segurtasuna eta ingurumenaren kalitatea hobetzen dituzte.

Bada, honako alderdi hauek jorratzen dira “A-8 autobideak, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak eta Artxandako Tunelek osatzen duten bide-azpiegituren sistemako mugikortasunaren urteko azterlana (2022)” deituriko dokumentu honetan:

- Azpiegiturek Bizkaiko lurraldearen garapenean duten eragin sozioekonomikoaren azterketa
- Trafikoaren gaur egungo egoera eta bilakaera, AP-8 autobidean (Usansolo – Gipuzkoako lurralde historikoarekiko muga[1] tarteari dagokionez), Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean eta Artxandako Tuneletan.
- Autobideen trafiko-matrizea eta erakarpen-maila, beste korridore batzuekiko.
- Jarduketak eta gorabeherak mugikortasunean, erabiltzailearen arretan eta bide-sarearen gaineko irudipenean.
- Trafiko-istripuak, istripu-tasaren adierazleak eta erabilitako ordainketa-moduak.

[1] 2014tik, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du Basauriren eta Galdakaoren (Usansolo) arteko tartea.




# 1 Azpiegituren trazaduraren eta ordainketa-sistemaren deskribapena

## 1.1 LOTURAK, TARTEAK ETA LUZERAK

### 1.1.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA

30,92 km luze den autobidea Gipuzkoako lurralde historikoaren mugaren eta Usansoloren (El Gallo/Urgoiti lotura) artean igarotzen da, eta honako udalerri hauei eragiten die: Ermua, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta, Amorebieta, Lemoa, Bedia eta Galdakao.

Jatorrian, autobidearen zeharkako sekzioa 3,50 m-ko zabalerako bi erreiko bi galtzadak osatzen zuten; 3,20 m-ko erdibitzaile batek banantzen zituen horiek, eta kanpoaldean 2,50 m-ko bi bazterbide zeuden. Ibilbide osoan, maldek ez zuten gainditzen % 4ko gehieneko balioa. Fluxu askeko abiadura, orokorrean, 120 km/h-koa da.

Urteekin, bidea hainbat aldiz zabaldu da; hala, galtzada bakoitzak hiru errei dauzka Galdakaotik Larrea auzorainoko tartean (Boroaren eta Montorraren artean dago auzo hori), 10,6 km-ko luzeran. Halaber, erreiak gaineratu dira Montorratik (Amorebieta Ekialdea) Iurretaraino (Durango), 8,2 km-ko luzeran.

Epe laburrera aurreikusitako hobekuntzen planaren arabera, Larrearen eta Etxanoren arteko tartea baino ez da geratzen, zeina Basauriko eta Iurretako loturen artean baitago.




Hobekuntza-plan horren barruan, Galdakao – Erletxe tartean hiru erdilotura berri eraiki eta jarri dira zerbitzuan: Galdakao mendebaldea, Urgoiti ekialdea eta Txorierri mendebaldea. Tarte hori askoz ere gehiago integratu da bide-sare tradizionalean, eta, horrela, hobetu egin dira Bilbo ekialderako hiri-inguruko loturak (Galdakaorekin, Urgoitirekin eta Txorierrirekin, batez ere), bidesaririk gabeko araubidean). Halaber, Boroa Ekialdeko erdilotura eraiki da AP-8an, auzo horretatik Donostiarako noranzkoan.

2012ko ekainean, Iurretaren eta Abadiñoren arteko 4,7 km-ko tartean (Iurretako ordainlekuaren eta Lebario auzoaren artean), hirugarren erreia zabaltzeko obrak hasi ziren, eta, hala, jarraitutasuna eman zitzaien lehenago egikaritutako jarduketei. Jarduketa horretan, gainera, sarbide berria eman zitzaion AP-8 autobideari; Gerediagako lotura, alegia. Horri esker, lotura egin ahal da hauekin:

- N-634 errepidearekin, trafikoa Iurretako udal-mugartetik igaro ez dadin;

- **Erletxe/Txorierri** (103+330 KP) N-637 errepideari (Txorierriko korridorea) lotuta dago. Bilboranzko adarrak 2006an amaitu ziren. Ez daukate zuzeneko loturarik, gaur

- N-636 errepidearekin, Abadiño eta Elorrio udalerriekin lotura ahalbidetzeko;
- BI-633 errepidearekin, Berriz eta Markina udalerriekin eta Lea Artibai eskualdearekin lotura egiteko.

2018ko irailean, Ermuko Hegoaldeko Saihesbidea inauguratu zen. Ondorioz, Ermuko loturako ordainlekuko kabinak tokiz aldatu behar izan dira: lehen, San Lorentzon zeuden, eta, orain, Uretamendi tunelaren ondoan daude, Areition N-634 errepidearekin lotura egiteko.

Horrenbestez, Bizkaiko tartearen barruan, AP-8 autobidea zazpi lotura osoren bidez (bi norabideetan) lotzen da gainerako bide-sarearekin, aipaturiko lau erdilotura berriak barne hartuta. Lotura horien izenak eta autobideak lotura horietako bakoitzean konektatzen dituen errepideen izenak honako hauek dira:

- **Ermua (77+300 KP)** N-634 (Donostia – Bilbo) errepidearekin lotuta dago, Uretamendi tunelaren eta Ermuko Hegoaldeko Saihesbidearen bidez.
- **Abadiño (84+800 KP)** N-634 (Donostia – Bilbo) nahiz BI-633 (Durango – Ondarroa) eta N-636 (Durango – Elorrio) errepideekin lotuta dago. 2012an jarri zen zerbitzuan. 2021ean, zerbitzuan jarri zen Gerediagaren eta Elorrioren arteko autobide berria, eta lotura horren bidez lotzen zaio AP-8ari.
- **Iurreta (88+300 KP)** N-634 (Donostia – Bilbo) nahiz BI-623 (Durango – Gasteiz) errepideekin eta Durangorako sarbidearekin lotuta dago. Enborreko ordainlekuko hesia lotura horren adarren artean kokatuta dago.
- **Amorebieta ekialdeko lotura (96+500 KP)** N-634 errepideari lotuta dago.
- **Boroako loturak** bi lotune ditu, eta bien artean 1,14 km-ko tartea dago:
  - Boroa Ekialdea (99+060 KP)
  - Boroa Mendebaldea (100+200 KP)

Amorebieta Ekialdeko loturari nahiz Boroako loturari esker, honako hauekiko lotura egin daiteke: N-634 (Donostia – Bilbo), BI-635 (Lemoa – Gernika) eta BI-4342 (Bororako sarbidea eta Amorebieta-Etxanorako sarbidea).

egun, N-634 errepidearekin, horren adarrak ezabatu egin baitziren Urgoiti ekialdeko erdilotura egindakoan.

- **El Gallo/Urgoiti** (105+800 KP) zuzen-zuzen

lotuta dago N-240 errepidearekin (Bilbo – Gasteiz, Barazarretik). Amorebieta – Gipuzkoa erdilotura (El Gallo Ekialdea) 2006an jarri zen zerbitzuan.

AP-8 autobidearen ezaugarri nabarmen gisa aipatu behar dugu Zaldibarko tunela, Iurreta-Ermua tartean dagoena. Tunelak bi tutu biki dauzka, gutxi gorabehera 600 metro luze direnak, eta segurtasun-instalazio berriak jarri zaizkio, modernizazio- eta hobekuntza-ekintza gisa (2006an amaitu ziren).

Gainera, garrantzitsua da adieraztea AP-8ak, Bizkaiko tartean, 65 egitura dauzkala, baita zenbait pontoi eta zenbait ingeniaritza-lan ere.

Trafikoa kudeatzeko zentroa eta mantentze-lanen basea Iurretan daude, eta horiek ere birmoldatu egin dira.

A-8 autobideko trafikoa kudeatzeko sistema honako hauek osatzen dute:

- Kontrolgunea.
- Zaintza- eta segurtasun-sistemak Zaldibarko tunelean.
- Trafiko-aforatzaileak.
- Bi meteorologia-estazio, Zaldibarren eta Erletxen.
- 17 SOS zutabe-bikote (12 gehiago tuneletan).
- Mezu aldagarriko panel 1, sarbideetan.

Bizkaiko tartearen barruan, Amorebieta-Etxanon zerbitzugune bat dago, eta Iurretan atsedengune bat.

Amorebieta-Etxanoko zerbitzuguneak horrelako instalazioek edukitzen dituzten zerbitzu guztiak biltzen ditu: erregai- eta lubrifikatzaile-hornidura, ibilgailuen garbiketa, kafetegia-jatetxea, dendak, jolasgunea eta ibilgailuen aparkalekua.

Iurretako atsedengunean, aparkalekuak eta erabiltzaileek atseden hartzeko behar diren elementu guztiak daude.

Azterketa honen ondorioetarako, mendebalde-ekialde zirkulazio-noranzkoa hartuko da kontuan. Ibilbidea El Gallo/Urgoitiko loturan hasiko da (105,8 KP), eta Gipuzkoarekiko mugan amaituko (74,9 KP). Ibilbide horretan, honako tarte hauek daude, eta, tarteen artean, honako luzera hauek:

| **Tarteak** | **Luzera (km)** |
|---|---|
| 1. El Gallo/Urgoitiko L. (105,8 KP) – Erletxeko L. (103,3 KP) | 2,47 |
| 2. Erletxeko L. (103,3 KP) – Boroa M.ko L. (100,2 KP) | 3,13 |
| 3. Boroa Mendebaldeko L. (100,2 KP) – Boroa Ekialdeko L. (99,1 KP) | 1,14 |
| 4. Boroa Ekialdeko L. (99,1 KP) - Amorebieta Ekialdeko L. (96,5 KP) | 2,56 |
| 5. Amorebieta E.ko L. (96,5 KP) – Iurretako L. (88,3 KP) | 8,20 |
| 6. Iurretako L. (88,3 KP) – Abadiñoko L. (84,8 KP) | 3,5 |
| 7. Abadiñoko L. (84,8 KP) – Ermuko L. (77,3 KP) | 7,52 |
| 8. Ermuko L (77,3 KP) – LHM (Gipuzkoa) (74,9 KP) | 2,40 |
| GUZTIRA | **30,92** |

### 1.1.1-a Mapa

**AP-8 autobideko loturen kokapena Bizkaiko tartean**



## 1.1.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

2011ko irailaren 10ean, abian jarri zen Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen (AP-8) 1. fasea, planifikatutako lehenengo fasea. Saihesbidea A-8aren alternatiba gisa diseinatu zen, eta, gutxi gorabehera, 15,5 km-ko ibilbidea dauka Bilbo Ekialdeko loturatik (Peñaskal) Ortuellako loturaraino.

Bide berriaren enborra Peñaskal auzoan (Bilbo) hasten da, eta A-8aren hegoaldetik igarotzen da. Bilbo Hegoaldeko loturan lotzen da BI-636 errepidearekin, Alonsotegi/Kastrexanatik hurbil, eta, hortik, mendebalderantz jarraitzen du, A-8ra hurbilduz, Trapagarango lotura berrira iritsi arte, zeina Sestaoko eta Portugaleteko loturen artean baitago. Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak aurrera egiten du, A-8 autobidearen enborrean sartuta, eta bat egiten du Santurtziko loturarekin Santander- Donostia noranzkoan. Azkenik, Ortuellako loturaren mendebaldean bukatzen da.

A-8ak eta ordainpeko autobide berriak (AP-8) Santander - Donostia noranzkoan ibilbidea partekatzen duten tartean, AP-8aren erabiltzaileak errei independenteetatik ibiltzen dira, A-8aren bi galtzaden artean. Aurkako noranzkoan, AP-8aren erabiltzaileek A-8aren erabiltzaileen errei berberak erabiltzen dituzte, baina ahalmen handiko albo-bide bat eraiki da itsasadarraren ezkerraldean, bi noranzko dituena. Bide horrek Trapagarango, Portugaleteko eta Santurtziko loturak konektatzen ditu, Ballontiko ardatzean (BI-628), A-8an eta Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean (AP-8) konexioak errazteko.

MHSaren enborraren trazadura halako geometriarekin diseinatu da, non 120 km/h-ko abiaduran ibil baitaiteke, baina, hertsiki geometrikoak ez diren beste arrazoi batzuk tarteko (tunel luzea izatea, esate baterako), abiadura-muga txikiagoak ezarri behar dira.

Bideak 3,5 m-ko zabalera duten bizpahiru erreiko bi galtzadako sekzioa du. Trapagaran – Bilbo Ekialdea tarteak hiru errei ditu galtzadako; hala ere, Saihesbideko gainerako zatia birekin eraiki da, loturen eragina duten gune jakin batzuetan izan ezik. 1 m eta 2,5 m zabaleko bazterbideak dira, eta 1 m-ko bermak dituzte.

Metropoliko Hegoaldeko Saihesbidearen eta bide-sareko gainerako zatien arteko loturak egiteko, lotune oso bat eta norabidezko hiru lotune daude. Hauek dira lotura horien izenak eta autobideak lotura horietako bakoitzean konektatzen dituen errepideen izenak:

- Santurtzi (128+700 KP) BI-628 errepidearekin lotuta dago (Ballontiko ardatza: Santurtzirekiko, Ortuellarekiko eta N-634arekiko konexioa).
- Trapagaran (126+450 KP) A-8arekin (Kantabriarako noranzkoan), BI-638 errepidearekin (Ballontiko ardatza: Sestao Portugaleterekin lotzeko konexioa) eta BI-3747 errepidearekin (N-634 – Trapagaran – Urioste) lotuta dago.
- Bilbo Hegoaldea (119+300 KP) BI-636 errepidearekin (Kadaguako korridorea: Balmasedarekiko konexioa), BI-3651 errepidearekin (Alonsotegirako sarbidea) eta BI-3742 errepidearekin (Zorrotza – Bilborako sarbidea) lotuta dago.
- Bilbo Ekialdea (115+200 KP) A-8arekin (Gipuzkoarantz) eta BI-631 errepidearekin (N-634arekin bat egiten duen Miraflores zubian) lotzen dago.

127+470 KPan, Portugaleteko lotura dago. Ez du sarbide zuzenik MHSra, baina A-8arekiko lotura ahalbidetzen da, baita Ortuella eta Trapagarango biztanle-guneetarako sarbidea ere. Azterketa honen ondorioetarako, loturen arteko tarte eta luzera hauek hartu dira kontuan.

| **Tarteak** | **Luzera (km)** |
|---|---|
| 1. Ortuellako L. (130,7 KP) – Santurtziko L. (128,7 KP) | 2,0 |
| 2. Santurtziko L. (128,7 KP) – Trapagarango L. (126,45 KP) | 2,25 |
| 3. Trapagarango L. (126,45 KP) – Bilbo Hegoaldea (119,3 KP) | 7,15 |
| 4. Bilbo Hegoaldea (119,3 KP) – Bilbo Ekialdea (115,2 KP) | 4,1 |
| GUZTIRA | **15,5** |

## 1.1.2-a Mapa

### Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko loturen kokapena. Ortuella - Bilbo Ekialdea tartea



## 1.1.3 ARTXANDAKO TUNELAK

2002ko maiatzaren 26an, Artxandako Tunelak zerbitzuan jarri ziren. 5,5 km inguruko luzera daukan hiru ardatzeko bide-sistema horrek triangelu antzekoa eratzen du Txorierriko Korridorearen eta Bilboko hirigunearen artean.

Ardatzetako bik (Salbe – Txorierri tunelak eta Ugasko – Txorierri tunelak, bidesaridunak biak) Bilboko hirigunea aireportuarekin eta itsasadarraren eskuinaldeko udalerriekin lotzeko aukera ematen dute.

Hirugarren tunela (bidesaririk gabeko Salbe – Ugasko tunela) Begoña eta Deustu auzoen arteko hiriko trafikoaren saihesbidea da.

Salbe – Txorierri (BI-626) ardatza Salbeko zubitik Txorierriko Korridoreraino doa, 2 km inguruko luzera izanda. Ardatz horrek Artxanda mendiaren azpian dagoen tunela zeharkatzen du, hiru erreiko sekzioarekin (errei bi Txorierrirantz, eta bestea Salberantz). Errei bakoitzak 3,5 m-ko zabalera eta 1.270 m-ko luzera dauzka. Era berean, azpiegitura bi loturarekin osatzen da: Salbekoarekin eta Txorierrikoarekin.

Ia-ia 2 km-ko luzera duen Ugasko – Txorierri (BI-627) ardatzak Artxanda mendiaren azpian dagoen tunela zeharkatzen du, eta Deustuko Zubia Txorierriko Korridorearekin lotzen du. Tunelaren sekzioa errei bikoa da (norabide bakoitzeko errei bat, 3,5 m-koa), 1.073 m-ko luzerarekin. Ugaskoko loturarekin eta bi adar osagarrirekin osatzen da Txorierriko loturan.

Azkenik, Ugasko – Salbe ardatzak BI-625 errepidearen loturarekin lotzen du San Pio X.aren plaza (Deustuko zubiaren ondoan), Loruritik hurbil, 1.500 m inguruko luzera izanda. 1.500 metro horietatik 1.073 m errei biko sekzioa duen tunel batean daude (norabide bakoitzeko errei bat, 3,5 m-ko zabalerarekin).

Obran 2.850 m tunel hondeatu dira; 135 m egin dira tunel faltsuetan, eta 112 m tunel sonikoetan. Hori osatzeko, errei bateko adarren 4.250 m egikaritu dira, bai eta errei biko adarren 820 m, 10 egitura eta 18 horma ere.

Instalazio osagarriei dagokienez, eta tuneletan segurtasunik handiena bermatzeko, tunelak beharrezkoak diren elementu guztiez hornitu dira:

- SOS zutabeak (68 unitate) eta seinalizazio aldakorreko panelak (14 unitate)
- Telebista-zirkuitu itxia eta megafonia-, telefonia- eta irrati-sistema
- Gorabeherak automatikoki detektatzeko sistema
- Trafikoko datuak hartzeko eta datuak komunikatzeko sistema
- Suteak detektatzeko eta galiboak detektatzeko sistemak
- Argiztapen- eta aireztapen-kontrola.

Azpiegituraren informazioa, komunikazioa, zaintza eta segurtasuna Txorierri Korridorean dagoen kontrolgunearen eraikinean kudeatzen dira. Halaber, lotura horretan bertan ordainlekua dago. Eremu horrek eskuzko ordainketarako 7 bide dauzka, ordainketa automatikorako 4 bide eta 4 bide dinamiko, horiek guztiak teleordainketako bideekin osatuta (guztira, 15).

2013ko ekainaren 6tik aurrera, Interbiakek bere gain hartu zuen azpiegitura horren kudeaketa.

Azterketa honen ondorioetarako, tunelen tarte eta luzera hauek hartu dira kontuan.

| **ARTXANDAKO TUNELAK** | **Luzera (km)** |
|---|---|
| 1. Salbe – Txorierri tunela (BI-626) | 2,0 |
| 2. Ugasko – Txorierri tunela (BI-627) | 1,5 |
| 3. Salbe – Ugasko tunela (BI-625) | 1,1 |
| GUZTIRA | **4,6** |

**1.1.3-a Mapa**

## Kokalekua eta loturak Artxandako Tuneletan



# 1.2 BIDESARIA KONTROLATZEKO SISTEMA

## 1.2.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA

Bidesaria enborreko eta alboko estazioetan (loturak) ordaintzen da; horietan beharrezko elementu guztiak (instalazioak, softwarea eta komunikazio-sistemak) daude, eskuzko ordainketa, ordainketa erdi-automatikoa eta ordainketa automatikoa (teleordainketa edo T bidea izenekoa, txartel bidezko ordainketa eta eskudiruzkoa) egiteko.

Basauri – Gipuzkoako lurralde historikoarekiko muga tartean, ordaintzeko bi sistema desberdin daude ezarrita:

- Irekia, El Gallo/Urgoitiren eta Iurretaren artean
- Itxia (bidaiaren hasieraren bereizketa), Iurretaren eta Gipuzkoarekiko mugaren artean

Sistema irekian kontrolaturiko adarretako ibilgailuak El Gallo Mendebaldeko eta Ekialdeko eta Txorierriko honako lotura hauekin dituzte erlazioak, zirkulazioaren bi noranzkoetan.

| SISTEMA IREKIKO LOTURA | LOTURIKO TARTEAREN LUZERA (KM) |
|---|---|
| Boroa (100,2 KP) | 10,84 |
| Iurreta M. (88,2 KP) | 22,74 |

Sistema itxiaren barruan (bidaiaren jatorriaren kontrola), berriz, honako hesi hauek sartzen dira:

| SISTEMA ITXIKO HESIAK | |
|---|---|
| Mendebaldeko hesia (Iurretako enborra) | (88,2 KP) |
| Iurreta Ekialdeko lotura | (88,2 KP) |
| Abadiñoko lotura | (84,8 KP) |
| Ermuko lotura | (77,3 KP) |

## 1.2.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

Bidesaria enborreko estazioetan ordaintzen da, edo, bestela, eskuzko ordainketa, ordainketa erdi-automatikoa eta ordainketa automatikoa (teleordainketa edo T bidea, txartelarekin nahiz eskudirutan) egiteko behar diren instalazioak dauzkaten loturetan. Tarifen sistema itxia dago ezarrita; hots, bidaiaren jatorria bereizten da.

| SISTEMA ITXIKO HESIAK | |
|---|---|
| Ugarte Ezkerraldea | (125,5 KP) |
| Ugarteko enborreko hesia | (125,5 KP) |
| Bilbo Hegoaldeko lotura | (119,3 KP) |
| Bilbo Ekialdeko lotura | (115,2 KP) |

## 1.2.3 ARTXANDAKO TUNELAK

Bidesaria Txorierriko loturan dagoen ordainlekuan ordaintzen da, Salbe – Txorierri eta Ugasko – Txorierri tuneletarako. Irekia da: bidaiaren jatorriaren arabera ez dago ezberdintasunik. Salbe – Ugasko tunela zirkulazio askekoa da, hiriko tunela den aldetik.




# 2 Azpiegiturek Bizkaiko lurraldearen garapenean duten eragin sozioekonomikoaren azterketa

Bide-azpiegiturak funtsezko piezak dira lurralde baten garapen ekonomiko eta sozialean, errepide bidezko garraioak jarraitzen duelako izaten salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko modu nagusia.

Bidaiarien trafikoari begiratuz gero, Eusko Jaurlaritzaren Garraio Behatokiak mugikortasunaren inguruan egindako azken inkestak dio (2021ean egin zuen, eta 2023ko otsailean argitaratu) Bizkaian bizi direnen % 25,8k ez dutela joan-etorririk egiten ohiko astegunetan. Azpimarratu beharra dago kategoria horren barruan sartzen direla oinez 5 minututik beherako iraupenean egindako bidaiak. Balio hori mugikortasunari buruzko aurreko inkestan lortutakoaren bikoitza baino gehiago da (% 10,6); 2016an egin zen, eta 2017an argitaratu.

Joan-etorrien kopuru absolutuan, Bizkaiko lurralde historikoan bizi direnek 3,6 milioi joan-etorri baino gehiago egiten dituzte; hau da, aurreko inkestan jasotakoak baino 300.000 joan-etorri gehiago. Bidaia horietatik 1,9 milioi motordun ibilgailuan egiten dituzte; zehazki, 1,3 milioi autoz (ibilgailu pribatuan eta taxian) eta motorrez egiten dituzte.

Euskadiko batez besteko datuekin bat, joan-etorrien % 51,3 lantokira joateko egiten dira; % 19,1 kudeaketak egiteko, % 9,4 aisialdiko jarduerak egiteko, % 5,9 ikastegira joateko (unibertsitateak, ikastetxeak, institutuak...), eta % 8,1 erosketak egiteko.

Datu horietatik bi ondorio nagusi atera ditzakegu:

- Lantokira joatea da Euskadin egiten diren joan-etorrien arrazoi nagusia, erdia baino gehiago baitira. Horrek esan nahi du lanaren faktorea oso garrantzitsua dela herritarren mugikortasunean. Etxetik lantokirako joan-etorriek markatzen dituzte herritarren eguneroko mugikortasun-ohiturak, argi eta garbi.

- Kudeaketak eta aisialdiko jarduerak egiteko joan-etorriak ere esanguratsuak dira, eta horrek argi erakusten du mugitu beharra dagoela eguneroko zereginak egiteko eta jolas-jarduerez gozatzeko.

Ondorio horiek agerian jartzen dutenez, oso garrantzitsua da lanarekin, eguneroko kudeaketekin, aisialdiarekin, hezkuntzarekin eta erosketekin lotutako joan-etorriak erraztuko dituen garraio-azpiegitura eraginkor eta ondo planifikatua edukitzea, Euskadiko herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea hobeak izan daitezen.

Errepideak ez du zuzenean eraldaketa ekonomikorik edo sozialik sortzen, eraldaketa horiek faktore askoren menpe baitaude, baina aldaketak sustatzen ditu biztanleriaren banaketan, irisgarritasunaren hobekuntzan eta lurraldearen egituraketan. Horri esker, erraztu egiten dira era guztietako jarduerak, enplegua eta enpresen lehiakortasuna.

Horrela, kalitatezko bide-sare batek eragin

erabakigarria izan dezake aukera-berdintasuna lortzeko eta egoera txarrenean dauden

eremuetako bizi-kalitatea hobetzeko. Ekonomia-faktoreak (hala nola, enpresen kokapena, haien ekoizpen- eta banaketa-kostuak, turismoa, enplegu-aukerak) edo gizarte-faktoreak (besteak beste, garapen demografikoa, erabiltzaileek aukeratzen duten garraiobidea, udalerrien arteko komunikazio eroso eta azkarra edo joan-etorrien segurtasuna), hein handi batean, bide-sarearen kalitatearen mendeko aldagaiak dira; hortaz, kalitatezko bide-sarea garapenaren faktore “permisiboa” da.

Hurrengo ataletan, aldagai horietako zenbait aztertuko ditugu, ordainpeko autobideek Bizkaiko lurralde-garapenean izan duten eta duten eragina aztertzeko.

# 2.1 DEMOGRAFIA ETA LURRALDE-ANTOLAKETA

## 2.1.1 BILAKAERA HISTORIKOA

Ahalmen handiko errepideen sareari esker (horien artean daude dokumentu honen xede diren autobideak), Bizkaiko lurraldearen egituraketa gauzatu daiteke. Gure bide-sarearen ezaugarriak zehaztu dituzten arrazoiak ulertzeko, historiari buruzko gogoeta egin beharra dago ezinbestean, aberastasuna sortzeko gune nagusiei buruzkoa, eta, beraz, Bizkaiko ekonomiaren eta gizartearen eragile nagusiez hausnartu behar da.

Ahalmen handiko azpiegituraren xedea, jatorrian, aurretik dagoen eskaria betetzea da. Alabaina, azpiegiturak berak, behin egindakoan, eragina du bere eraginpeko eremuko garapen demografiko eta ekonomikoan; hartara, udalerri batzuen hazkundea erraztu eta beste batzuena mugatzen du.

XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera bitartean, Somorrostroko (Muskiz, Abanto-Zierbena, Zierbena, Santurtzi, Ortuella, Trapagaran eta Sestao udalerriak), Galdameseko eta Sopuertako burdin-ustiapenak, kalitate handia zuenez oso estimatua baitzen Europan, Bilboko Portuaren hazkundea bultzatu zuen, baita Nerbioiko ezkerraldeko industria siderometalurgikoaren garapena ere. Hasiera batean, trenaren aldeko apustua egin zen, barne-merkatua penintsularekin lotzea eta portuarekin komunikatzea ahalbidetuko zuen garraiobidetzat jo baitzen. Gerra Zibilean, ordea, trenbide-azpiegitura dezente hondatu zen, eta, gerraostean, hornidura-eskasia egon zen. Horren ondorioz, errepide bidezko garraioak gora egin zuen pixkanaka.

1950eko hamarkadan, Bizkaiak errepide-sare moderno bat edukitzeko kudeaketak hasi ziren, eta 1965aren eta 1975aren artean jarri ziren martxan.

1970eko hamarkadan jarri ziren AP-8 autobidea Bilboren eta Behobiaren artean, AP-68a Altubetik goi-lautada zeharkatzeko eta Hegoaldeko Irtenbidea (A-8), ibilgailu astunak Bilboko hirigunetik ibiltzea saihesteko. 1980ko hamarkadan, berriz, Ugaldebietako Irtenbidea jarri zen martxan (San Fuenteseraino), eta, 1990eko hamarkadan, San Fuentes eta Haya arteko tartea (Kantabriarekiko mugan).




**Biztanleriaren bilakaera (1900-1991 aldia)**

Iturria: EIN

1970ean, Bizkaiak milioitik gorako biztanleria zuen, Euskadiko guztizkoaren % 55. Udalerririk populatuenak, hiriburuaz gain, Barakaldo, Santurtzi, Portugalete, Getxo eta Sestao dira. Era berean, Basauriko hazkunde handia nabarmentzen da, industria asko kokatu zirelako bertan eta etxebizitza-kopuru handia egin zelako.

1980ko hamarkadatik aurrera, bizkaitarren kopuruak asko egin zuen behera; besteak beste, industria eraldatzeko prozesuagatik eta 1990eko hamarkadaren hasierako krisiagatik. Biztanleriak 2004an jo zuen behea, 1,12 milioi biztanle ingururekin, eta, gero pixkatxo bat gora egin bazuen ere, 2012an berriro jaitsi zen, ekonomia-krisiaren eraginez.

2022an, Eustaten datuen arabera, Bizkaian 1.139.209 biztanle daude, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago (-% 0,43).

Azken hamarkadan (2012-2022), Bizkaiko guztizko biztanleria % 1 murriztu zen, eta Bilboko Metropoliaren Eremua da biztanleria guztizko balioetan gehien murriztu duen eskualdea Bizkaian.

Balio erlatiboetan biztanleria-igoera handiena izan duten eskualdeak, berriz, Arratia/Nerbioi, Mungialdea eta Durangaldea dira.

Ahalmen Handiko Sarea da lurraldeko ardatz demografikorik dinamikoena.

| **Eskualdea** | **∆ Biztanleria (2012-2022)** | |
|---|---|---|
| | **biztanleak** | **%** |
| Metropoliaren Eremua | -20.191 | -% 2,3 |
| Mungialdea | 4.798 | % 8,8 |
| Busturialdea | -190 | -% 0,4 |
| Lea-Artibai | -678 | -% 2,6 |
| Durangaldea | 972 | % 1,0 |
| Arratia/Nerbioi | 431 | % 1,8 |
| Enkarterri | -67 | -% 0,2 |
| **BIZKAIA** | **-14.925** | **-% 1,3** |

### 2.1.1-a Mapa




**Hazkunde demografikoa % (1996-2022 aldia)** Iturria: Eustat (guk egina)

## 2.1.2 2022KO ANALISI DEMOGRAFIKOA

Eustatek biztanleriari buruz argitaraturiko azken datuen arabera (2022ari dagozkio), Bizkaiko lurraldeak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztien % 52,1 hartzen du, 1,14 milioi bat lagun, eta modu irregularrean daude banatuta Bizkaiko 112 udalerrietan.

Geografiaren aldetik, biztanle gehienak 3 udalerritan metatuta egotea da ezaugarri nagusia. Bilbon (guztizko populazioaren % 29,9 bizi da bertan), Barakaldon (% 8,7) eta Getxon (% 6,6). Hiruren artean, Bizkaiko biztanleriaren ia erdia hartzen dute (% 45,3).

Bestalde, udalerrien % 33,0k 1.000 biztanle baino gutxiago dauzkate. Udalerrien % 82,1 10.000 biztanle baino gutxiagokoak dira, eta, horietan, bizkaitar guztien % 18,9 baino ez dira bizi.

Banaketa geografiko horrek modu erabakigarrian eragiten du herritarrek bidaiatzeko erabiltzen dituzten garraiobideetan.

2.1.2.a Taula

**Bizkaiko eta Euskadiko udalerriak, biztanleriaren arabera. 2022. Urtea**




| Biztanleria-tarteak (biz.) | Udalerri-kop. | Biztanleria guztira (biz.) | Udalerrien %a | Biztanleriaren %a |
|---|---|---|---|---|
| **< 1.000** | 37 | 18.337 | % 33,0 | % 1,6 |
| **1.000 – 5.000** | 40 | 90.525 | % 35,7 | % 7,9 |
| **5.000 – 10.000** | 15 | 108.802 | % 13,4 | % 9,5 |
| **10.000 – 20.000** | 9 | 136.735 | % 8,0 | % 11,9 |
| **20.000 – 50.000** | 8 | 273.918 | % 7,1 | % 23,8 |
| **50.000 – 100.000** | 1 | 76.365 | % 0,9 | % 6,6 |
| **>100.000** | 2 | 444.662 | % 1,8 | % 38,7 |
| | | | | |
| **BIZKAIA GUZTIRA** | **112** | **1.149.344** | **100** | **100** |

## 2.1.3 EGUNEROKO JOAN-ETORRIAK

Eskura ditugun errolda-datuek hiru talde nagusitan sailkatzen dituzte garraiobideak: garraio pribatua, garraio publikoa eta oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak.

Biztanle gutxieneko herrietan (10.000 biztanle baino gutxiagokoetan) gehien erabiltzen den garraiobidea garraio pribatua da. Udalerriko biztanle-kopurua zenbat eta handiagoa izan, ostera, orduan eta handiagoa da garraio publikoaren erabilera, eta gehiago dira oinez edo bizikletaz eginiko bidaiak.

Izan ere, biztanleria udalerri jakin batzuetan biltzeak beste zerbitzu eta jarduera batzuk metatzea ekartzen du (adibidez, industria eta merkataritza), 0. atalean aztertzen den moduan.

Horrez gain, biztanle gutxiagoko udalerrietako garraio publikoaren eskaintza txikiagoa izaten da udalerri handiagoetakoa baino.

Hortaz, bide-azpiegiturak funtsezkoak dira lurralde guztietara iritsi eta herritar guztien aukera-berdintasuna bermatzeko.

Euskadiko azken datu eskuragarriak aztertuz gero, biztanle gutxien dituzten udalerrietako biztanleen % 56,9k erabiltzen dute garraio pribatua ohiko bidaiak egiteko, eta horietatik % 56,4k autoa erabiltzen dute.

EAEko hiru hiriburuetan, aldiz (100.000 biztanletik gora dauzkate), % 30,0k garraio pribatua erabiltzen du; horietatik % 28,5 autoz

ibiltzen dira, eta gehientsuenak bizikletaz edo oinez joaten dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko batez besteko balioetan, gehien erabiltzen den garraiobidea garraio pribatua da (% 39,4), eta, horietatik, % 38,4k autoa erabiltzen dute; ondoren, oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak datoz (% 37,6), eta, azkenik, garraio publikoa (% 22,9).

2015eko eta 2020ko errolda-datuak alderatuta beha daitekeen joeraren arabera, garraio pribatua eta autoa gero eta gehiago erabiltzen dira, eta, halaber, oinez eta bizikletaz egiten diren joan-etorriak ere ugaritzen ari dira; garraio publikoaren erabilerak, berriz, ia 6 portzentaje-puntu egin ditu behera.

Bizkaian, 2020an garraio pribatua erabili zen gehien (% 36,3), eta horren ondoren etorri ziren bizikletaz nahiz oinez egindako joan-etorriak (% 34,8); azkenik, herritarren % 28,9k garraio publikoa erabiltzen zuten. 2015arekin alderatuta, oinez eta garraio pribatuan egiten diren joan-etorriak ugaritu egin dira, eta garraio publikoaren erabilerak behera egin du (7 portzentaje-puntu baino gehiago).

Baliteke COVID-19aren pandemiaren ondoriozko mugikortasun-mugaketek Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bizkaiko balioetan eragin izana, inkesta 2020an egin baitzen.




## 2.2 EGOITZA-MUGIKORTASUNA

Biztanleriaren bizileku-aldaketen azterketari esker, azpiegiturek lurraldeko hiri-sakabanaketaren prozesuan duten eginkizuna ikus daiteke; izan ere, eragina dute herritarrek ohiko joan-etorriak egiteko jarraitzen duten trafikoaren mugikortasun-ildoetan.

Bizileku-mugikortasun hori migrazio-saldoaren bidez aztertzen da; hots, biztanle berrien eta joaten direnen arteko diferentzia hartzen da udalerri bakoitzean.

Hala, saldo hori positiboa denean, udalerria biztanleak erakartzen ari da, bertan bizitzera etor daitezen.

Prozesu horrek lotura estua dauka lurraldeko egoera ekonomikoarekin, eta, azken 25 urteotan, Bizkaian, migrazio-saldo positiboak ugariagoak izan dira ekonomia-oparoaldietan.

1998tik 2007ra, ekonomia- eta finantza-krisi orokorra baino lehen, honako hauek izan ziren egoiliarrak erakartzeko eskualde nagusiak:

- Bilboko Metropoliaren Eremua, Bilbo, Sopela, Etxebarri, Arrigorriaga, Leioa, Gorliz eta Berango udalerrietan;
- Mungialdea, gehienbat Mungia udalerrian, eta
- Durangaldea: gora egin du Durangon edo Amorebieta-Etxanon, eta behera Ermuan eta Iurretan.

Migrazio-saldo positiboek harreman zuzena dute hiri- eta egoitza-garapenarekin. Etxebizitza-kopuruaren igoeran ikus daiteke hori: % 70 Etxebarrin, % 50 Durangon eta % 32 Mungian.

Bestalde, industrialagoak diren udalerrietan (hala nola, Basaurin, Sestaon, Santurtzin eta Galdakaon) edo herri handiagoetan (besteak beste, Portugaleten edo Getxon), migrazio-saldo negatiborik handienak ageri dira, Ermuaz gain.

| Eskualdea | Saldoa (biz.) |
|---|---|
| | 2017-2021 |
| Metropoliaren Eremua | 18.411 |
| Mungialdea | 3.231 |
| Busturialdea | 1.201 |
| Lea-Artibai | 342 |
| Durangaldea | 1.907 |
| Arratia/Nerbioi | 598 |
| Enkarterri | 943 |
| **BIZKAIA GUZTIRA** | **26.633** |

Migrazio negatibo horrek zerikusia du familiek aldi horretan duten ahalmen ekonomikoarekin, baita etxebizitza hobetzeko nahiarekin ere (hain zuzen ere, biztanleguneetatik kanpora dauden beste batzuetara joateko gogoarekin), zeren eta etxebizitzaren prezioa handiagoa izaten baita halakoetan eta zailtasun handiagoak baitaude hirigune berriak izateko.

2007az geroztik, aldi ekonomiko berria hasi zen, non lanpostuak desegitea izan baitzen ezaugarri nagusia, baita okupazio-tasa txikia eta biztanleria aktiboaren hazkundea ere. Bizkaiko lurralde historikoko urteko batez besteko langabezia-tasarik handiena 2014an izan zen (% 17,2koa), eta okupazio-tasa % 46,1era jaitsi zen.

Krisiaren urterik txarrenak igaro ondoren, argitaratu diren azken datuen arabera, 2022an Bizkaiko langabezia-tasa % 11,2koa da, aurreko urtean erregistratutakoa baino % 0,5 txikiagoa.

2014tik aurrerako susperraldi ekonomikoa, era berean, Bizkaian erregistratutako migrazio-saldoetan beha daiteke. 2015etik aurrera, migrazio-saldoen guztizkoa positiboa izaten hasi zen, eta, 2016tik 2020ra, 27.652 biztanle mugitu ziren (Estatistikako Institutu Nazionalak dituen azken datuak 2020koak dira), biak barne. Udalerri txikienek (20.000 biztanletik beherakoek) eta 100.000 biztanletik gorakoek hartzen dituzte egoiliar gehien. 50.000 eta 100.000 biztanle arteko udalerriek, aldiz, biztanle gutxiago jasotzen dituzte. Eskualdeka, Metropoliaren Eremuaz gain, Durangaldeak eta Mungialdeak jasotzen dituzte biztanle gehien. Aldi horretan, honako udalerri hauek jaso dituzte egoiliar gehien: Bilbo, Barakaldo, Leioa, Santurtzi, Durango, Basauri, Amorebieta-Etxano, Urduliz, Portugalete eta Sopela.

Azterketa honetan ondoriozta daitekeenez, bide-azpiegiturak hobetzeak edo prestazio handiko sarea izateak erraztu egiten du bizilekuaren eta lantokiaren artean mugitzea. Horrek esan nahi du biztanleak hazkunde handiagoko eremuetara joaten direla, eremu metropolitarrenetik kanpo, eta egoitza-mugikortasuna sakabanatu egin dela.




**Migrazio-saldo metatu handienak dituzten udalerriak (2017-2021 aldia)**

# 2.3 ENPRESA-DEMOGRAFIA

Bide-sarearen ondorio ekonomiko nagusietako bat zera da, sekulako eragina duela inbertitzaile pribatu industrialak nahiz zerbitzuetako inbertitzaileak kokatzeko orduan.

Atal honetan aztertzen denez, AP-8a, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako Tunelak, ahalmen handiko bide-sarearen zati diren aldetik, beharrezkoak eta funtsezkoak dira Bizkaiko ekonomia, enpresak eta lurraldea garatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2022. urtean, orotara, 168.483 establezimendu daude erroldan jasota (dendak, bulegoak, lantegiak…), eta horietatik 87.379 Bizkaian daude (guztira, 455.454 laguni ematen diete lana).

Establezimendu-kopuruaren aldetik, ugariena merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorea da, establezimendu guztien % 35,6 baitira, eta, ondoren, jarduera profesional eta laguntzaileak (% 16,3) eta eraikuntza (% 11,9) datoz.

Enpleguari dagokionez, lan egiten duten biztanleen % 25,3k merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-sektorean egiten dute lan; % 24,3k administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean, eta % 14,4k jarduera profesional eta laguntzaileetan.

2008tik, establezimendu-kopuruak behera egin du; batez ere, 2009-2013 aldian.

COVID-19aren pandemia sanitarioaren ondoriozko mugikortasun-neurri murriztaileek eragin handia izan dute ekonomian, eta establezimenduen kopuruak % 1,7 egin zuen behera 2020an, eta % 0,8 2021ean; 2022an, berriz, % 1,1. Ehuneko horiek adierazten dutenez, 2019tik 2022ra bitartean 3.242 establezimendu galdu dira: azken hamarkadan erregistratutako urteetan, 2022an daude establezimendu gutxien (87.379).

Azken estatistika-datuak pandemiaren aurretik erregistratutakoekin alderatuz gero, gehien ukitu diren sektoreak merkataritza, garraioa eta ostalaritza izan dira (sektorean 2.013 establezimendu gutxiago daude, -% 5,9), baina baita jarduera profesional eta laguntzaileak (705 establezimendu gutxiago, -% 4,6) eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (384 establezimendu gutxiago, -% 19,7) ere.

Azken bost urteetan, honako sektore hauetan handitu da establezimendu-kopurua: jarduera artistikoetan eta bestelako zerbitzuetan (321 establezimendu gehiago, +% 4,5); administrazio publikoan, hezkuntzan eta osasunean (228 establezimendu gehiago, +% 2,3) eta informazioaren eta komunikazioen sektorean (109 establezimendu gehiago, +% 5,5).

2.1.3.a Taula.

**Establezimendu-kopuruaren bilakaera eta urterik urterako aldakuntzaren %a, jarduera-sektorearen arabera**

| Jarduera | 2019 | | 2020 | | 2021 | | 2022 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | kop. | % Δ | kop. | % Δ | kop. | % Δ | kop. | % Δ | enpleguaren %a |
| 01. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza | 1950 | 3,9 | 1892 | -3,0 | 1720 | -9,1 | 1568 | -% 8,8 | % 0,9 |
| 02. Industria, energia eta saneamendua | 4921 | -0,7 | 4838 | -1,7 | 4729 | -2,3 | 4656 | -% 1,5 | % 14,7 |
| 03. Eraikuntza | 10915 | 2,5 | 10708 | -1,9 | 10834 | 1,2 | 10839 | % 0,0 | % 14,7 |
| 04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza | 34035 | -1,3 | 33115 | -2,7 | 32665 | -1,4 | 32065 | -% 1,8 | % 6,6 |
| 05. Informazioa eta komunikazioak | 1967 | 1,0 | 1988 | 1,1 | 2033 | 2,3 | 2077 | % 2,2 | % 6,6 |
| 06. Finantza- eta aseguru-jarduerak | 2485 | 0,6 | 2388 | -3,9 | 2316 | -3,0 | 2238 | -% 3,4 | % 26,1 |
| 07. Higiezinen arloko jarduerak | 1858 | 1,5 | 1735 | -6,6 | 1788 | 3,1 | 1733 | -% 3,1 | % 26,1 |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 08. Jarduera profesional eta laguntzaileak | 15251 | 1,4 | 14940 | -2,0 | 14721 | -1,5 | 14568 | -% 1,0 | % 3,4 |
| 09. Adm. publikoa, hezkuntza eta osasuna | 9988 | 1,6 | 10064 | 0,8 | 10041 | -0,2 | 10216 | % 1,7 | % 3,4 |
| 10. Jard. artistikoak eta bestelako zerbitzuak | 7097 | 2,1 | 7222 | 1,8 | 7319 | 1,3 | 7419 | % 1,4 | % 2,0 |
| **Jarduera guztiak** | **90467** | **0,5** | **88890** | **-1,7** | **88166** | **-0,8** | **87379** | **-0,9** | **455454** |

Iturria: Eustat

**Bizkaiko establezimendu-kopuruaren banaketa, langile-kopuruaren arabera (2022)**




Establezimenduek herrialdean duten banaketari dagokionez, udalerri bakoitzeko biztanleria kontuan hartuta, batez besteko ratioa 7,6 establezimendukoa da 100 biztanleko, eta balioa antzekoa da Bizkaiko zazpi eskualdeetan.

2.1.3.b Taula.

. Taula Taulan ikus daitekeenez, biztanle gehien dauzkaten udalerriak dira, era berean, bestelako sektoreetako zerbitzuak biltzen dituztenak; hala nola, merkataritza, garraioa eta ostalaritza; administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza. Guzti-guztiak daude Ahalmen Handiko Sarearen eraginpeko eremuan.

Aldi berean, biztanleria eta zerbitzuak udalerri desberdinetan metatzeak eragina du bide-sarearen trafiko-ereduan, bidaiak erakartzeko eta sortzeko gune nagusiak baitira. Ordainpeko bideak hiri-antolaketan izaten ari diren papera aipatu behar da, biztanlegune handien arteko komunikazioa ahalbidetzen baitute eta biztanlegune horiek baitira merkataritza eta ostalaritza metatzen dituzten tokiak. Udalerri horien eta lurraldeko gainerako eremuen arteko komunikazioa seguruagoa eta erosoagoa da Ahalmen Handiko bide-sareari esker.

Honako atal hauetan, sektoreak banaka aztertuko ditugu.

**Biztanleria gehiagoko udalerriak eta establezimendu-kopurua, jarduera-sektoreen arabera (2022)**

**Iturria: Eustat**

| Ordena | Enplegatutako biztanleria (biz.) | | Establezimendu-kopurua | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Erletxe - Amorebieta M. | 3,5 | 7153 | 7095 | 7154 | 6162 | 7243 | 7112 | -1,8 | -0,6 |
| Amorebieta M. - Amorebieta E. | 4,0 | 6703 | 6673 | 6692 | 5944 | 6298 | 6501 | 3,2 | -3,0 |
| Amorebieta E. - Iurreta | 7,8 | 6381 | 6429 | 6478 | 5701 | 6416 | 6288 | -2,0 | -1,5 |
| Iurreta - Abadiño | 3,5 | 5220 | 5487 | 5778 | 5201 | 5831 | 5687 | -2,5 | 9,0 |
| Abadiño – Ermua | 11,1 | 4238 | 4356 | 4289 | 3749 | 4136 | 4179 | 1,0 | -1,4 |
| **Guztira** | **29,90** | **5583** | **5660** | **5691** | **5004** | **5582** | **5560** | **-0,4** | **-0,4** |

**Autobideak korridoreko trafikoan duen partaidetzaren bilakaera (Ibilgailu astunak)**

| Aztertutako tarteak | km | Erakarpenaren % | | | | | | Ekarpen-tasaren igoeraren % [3] | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2021-2022 | 2017-2022 |
| **AP-8 AUTOBIDEA** | | | | | | | | | |
| Erletxe - Amorebieta M. | 3,1 | 59,2 | 61,3 | 61,7 | 62,7 | 58,9 | 62,0 | 3,1 | 2,8 |
| Amorebieta M. - Amorebieta E. | 3,7 | 50,8 | 51,7 | 52,3 | 51,7 | 54,0 | 53,2 | -0,8 | 2,4 |
| Amorebieta E. - Iurreta | 8,2 | 57,7 | 58,3 | 58,9 | 59,3 | 58,3 | 61,8 | 3,5 | 4,1 |
| Iurreta - Abadiño | 3,5 | 76,2 | 74,5 | 72,4 | 76,8 | 76,1 | 79,4 | 3,3 | 3,2 |
| Abadiño – Ermua | 9,2 | 87,5 | 87,6 | 88,2 | 88,4 | 88,9 | 88,8 | -0,1 | 1,3 |
| **GUZTIRA** | **27,7** | **67,3** | **67,9** | **68,2** | **69,1** | **68,6** | **70,5** | **1,9** | **3,2** |

[3] Erakarpen-portzentajeen aldea

## 3.4.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

### 3.4.2.1 Korridorearen trafikoan duen partaidetza. 2022. urtea

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea egungo Hegoaldeko Irtenbidearen ordezko bidea izateko sortu da, eta AP-8a hiri-izaera handiagoko bide bihurtzea ahalbidetzen du horrek, Gurutzetaren eta Bilbo Ekialdearen arteko tarteari dagokionez; gainera, Bilbo Metropoliaren ezaugarrietara egokituta dago.

Hegoaldeko Irtenbideak Ugaldebietako eta Arrontegiko irtenbideekin lotzen du ordainpeko tartea; lehenengoa, Basauriko loturan (AP-8), eta, bigarrena, Gurutzetako loturan (Barakaldo). 12,1 Km-ko ibilbidea du, eta trafikoan bolumen ezberdinak biltzen dira bertan: 61.520 ibil./egun Basauri eta A-68 (Malmasin) autobideko loturaren artean eta 114.680 ibil./egun Gurutzeta Kastrexanako loturen artean, eta haztaturiko EBIn 92.153 ibil./egun dauka eta, ibilgailu astunen osaketa, berriz, %4,1ekoa

Bestalde, Ugaldebietako irtenbidea (A-8) Kantabriarekiko mugaren eta Gurutzetako (Barakaldo) loturaren artean doa; guztira, 16,8 km luze da, eta trafikoa hauexen artean dago: egunean 47.581 ibilgailu El Hayaren eta La Arenako loturaren artean, eta egunean 127.649 ibilgailu Sestaoko loturaren eta Gurutzetaren artean.

Gainerako bide-sarean gertatu bezala, 2022an bi azpiegituretako trafikoa igo egin da aurreko urteko datuekin alderatuz gero: Ugaldebietako Irtenbidean % 6,2 (6.000 ibilgailu inguru gehiago egunean), eta Hegoaldeko Irtenbidean % 5,3 (5.000 ibilgailu inguru gehiago egunean).

Korridoreko guztizko trafikoaren banaketaren gaineko alderaketa egin ahal izateko bi bideen artean (A-8 eta Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea), tarte homogeneoen araberako banaketa egin da.

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak 2022an trafikoan izan duen eraginaren ondorioz, 11.499 ibilg./egun desbideratu dira, horietatik 3.118 ibilgailu astunak direla.

Lorturiko emaitzek erakusten digutenez, Hegoaldeko Saihesbideak guztizko trafikoaren % 10,1 desbideratzen du, eta ibilgailu astunen trafikoa % 38,9koa da bi azpiegituretan. Ibilgailu astunen desbideratzearen ehunekoa % 49,8koa da Gurutzetako loturaren eta Bilbo Ekialdearen arteko tartean.

Horregatik guztiagatik, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea ibilbide luzeko bidaiak, salgai arriskutsuen garraioak eta Bilboko portua abiapuntu edo helmuga duten ibilgailu astunak bideratzen dituen bidea da. Funtsezko ekarpena egin du lurraldea egituratzeko orduan, Bilboko hirigunera arinago joatea ahalbidetzen baitu.

3.4.2.a Taula.

**Trafikoaren banaketa Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen eta A-8aren artean. 2022. urtea**

| Tartea | A-8 | | | MHS | | | Guztira | | MHSren % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Luzera | EBI | Astunak | Luzera | EBI | Astunak | EBI | Astunak | EBI | Astunak |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 1,5 | 69529 | 5354 | 2 | 8974 | 2580 | 78503 | 7943 | 11,4 | 32,5 |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 2,4 | 96008 | 6272 | 2,2 | 10131 | 2734 | 106139 | 8998 | 9,5 | 30,4 |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 3,1 | 117609 | 7106 | 3,6 | 11891 | 3029 | 129500 | 10149 | 9,2 | 29,8 |
| **Azpitartea Portuko lotunea – Gurutzetako lotunea** | 7,0 | 99900 | 6445 | 7,8 | 10763 | 2847 | 110663 | 9297 | 9,7 | 30,6 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 3,3 | 114680 | 4128 | 3,6 | 11891 | 3029 | 126571 | 7211 | 9,4 | 42,0 |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 4,3 | 114680 | 4128 | 4,1 | 12794 | 3749 | 109702 | 6642 | 11,7 | 56,4 |
| **Azpitartea Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | 7,6 | 96900 | 2907 | 7,7 | 11273 | 3419 | 115898 | 6872 | 9,7 | 49,8 |
| **Guztira Ortuellako L. –Bilbo Ekialdea** | **14,6** | **102357** | **4879** | **15,5** | **11499** | **3118** | **113858** | **8008** | **10,1** | **38,9** |

3.4.2.-a Grafikoa

**Trafikoaren banaketa Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen eta A-8aren artean. 2022. urtea**
**EBI (Ibilg. ast./egun)**



A-8 autobideari dagokionez, Santurtziko L. - Sestaoko L. tartean Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea egiteak bitarteko lotura berria sortzea ekarri du, Ballontiko Ardatzarekiko (Trapagako L.) lotura berria dena, baita Trapaga, Portugalete eta Santurtziko loturak batzen dituen gaitasun handiko alboko bidea ere, itsasadarraren ezkerraldekoa. Hala, nabarmen hobetu da sarearen mailatua inguruetan, eta itsasadarraren ezkerraldeak A-8arekin eta azpiegitura berriarekin duen irisgarritasun orokorra ere hobea da. Jarduketa-multzo horri esker, hobetu egin da Gurutzetako korapiloraino hedatzen den korridoreko tarte horretako zerbitzu-maila.

### 3.4.2.2 Hegoaldeko Saihesbideak korridoreko trafikoan duen erakarpenaren bilakaera

2022an, korridoreak Ortuellako loturaren eta Gurutzetako loturaren arteko tartean izan duen trafikoak gora egin du A-8 autobidean, % 5,3ko tasarekin, baita Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean ere, % 9,8ko tasarekin. Batez beste, korridoreak % 5,8ko tasa izan du; hau da, 2021ean erregistratutakoak (110.663 ibilgailu egunean) baino 6.000 inguru ibilgailu gehiago egunean. Dena dela, kopuru hori ez da iritsi, oraindik ere, 2019an egunean erregistratzen ziren 114.623 ibilgailuetaraino.

Ibilgailu astunei dagokienez, aurten trafikoa igo egin da: A-8 autobidean % 5,8ko tasarekin, eta Hegoaldeko Saihesbidean % 3,3ko tasarekin. Hala, korridore osorako tasa % 5,0koa izan da; hau da, 2021ean baino 400 ibilgailu astun gehiago egunean.

Gurutzetako eta Bilbo Ekialdeko loturen arteko tartean, korridoreko trafikoak behera egin du. Hazkunde-tasa -% 1,6koa da A-8an, eta -
.
% 2,1ekoa MHSn. Guztira, 108.173 ibilgailu erregistratu dira egunean, 2021ean baino 1.800 gutxiago (egunean).

Ibilgailu astunen kopurua ere jaitsi egin da, -% 9,3ko jaitsiera egon baita A-8an, aurreko urtearekin alderatuta. MHSn, % 1,5eko igoera egon da Gurutzetaren eta Bilbo Ekialdearen arteko tartean. Multzoan hartuta, jaitsiera -% 3,8koa izan da bi azpiegituren arteko tarterako.

Trafikoan duen erakarpenari dagokionez, 3.4.2.2.a) Taulak adierazten digu Hegoaldeko Saihesbidearen erakarpena 2022an % 10,1ekoa izan dela korridorearen guztizko trafikoarekiko; 2021ean, berriz, erakarpen hori % 9,9koa izan zen.

Ibilgailu astunei dagokienez, 3.4.2.2.b) Taulak jasotzen du 2022an % 39,0ra jaitsi dela 2021eko % 40,0ko erakarpen-tasa.

3.4.2.b Taula.

**Trafikoaren bilakaera korridorean. Erakarpenaren % (Ibilgailu guztiak/egun)**

| | Trafikoaren bilakaera (EBI) | | | | | | Urteko hazkundearen % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2021-2022 | 2017-2022 |
| **A-8 (Sol. HEGOALDEA-UGALDEBIETA)** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 70671 | 71691 | 72592 | 57170 | 65651 | 69529 | **% 5,9** | **-% 1,6** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 95816 | 97457 | 99256 | 80575 | 91477 | 96008 | **% 5,0** | **% 0,2** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 117362 | 118872 | 120495 | 98862 | 111537 | 117609 | **% 5,4** | **% 0,2** |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | **99970** | **101420** | **102948** | **83658** | **94827** | 99900 | % 5,3 | -% 0,1 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 112815 | 113991 | 114932 | 92314 | 107967 | 114680 | **% 6,2** | **% 1,7** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 100409 | 100846 | 101128 | 81125 | 91248 | 114680 | **% 25,7** | **% 14,2** |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **105796** | **106554** | **107122** | **85983** | **98508** | 96900 | -% 1,6 | -% 8,4 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **103003** | **104092** | **105121** | **84869** | **96743** | **102357** | **% 5,8** | **-% 0,6** |
| **METROPOLIAREN HEGO. SAIHES.** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 9108 | 9707 | 9676 | 6945 | 8148 | 8974 | **% 10,1** | **-% 1,5** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 10192 | 10950 | 10957 | 7894 | 9292 | 10131 | **% 9,0** | **-% 0,6** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 11838 | 12852 | 12935 | 9282 | 11037 | 11891 | **% 7,7** | **% 0,4** |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | **10785** | **11638** | **11674** | **8289** | **9801** | **10763** | % 9,8 | -% 0,2 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 11838 | 12852 | 12935 | 9282 | 11037 | **11891** | **% 7,7** | **% 0,4** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 12681 | 13546 | 13783 | 10124 | 11927 | **12794** | **% 7,3** | **% 0,9** |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **12298** | **13231** | **13398** | **9730** | **11511** | **11273** | -% 2,1 | -% 8,3 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **11537** | **12429** | **12530** | **9003** | **10646** | **11499** | **% 8,0** | **-% 0,3** |
| **KORRIDOREA, GUZTIRA** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 79779 | 81398 | 82268 | 64115 | 73799 | 78503 | **% 15,1** | **-% 1,6** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 106008 | 108407 | 110213 | 88469 | 100769 | 106139 | **% 13,9** | **% 0,1** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 129200 | 131724 | 133430 | 108144 | 122574 | 129500 | **% 13,3** | **% 0,2** |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | **110755** | **113057** | **114623** | **91947** | **104627** | 110663 | % 13,8 | -% 0,1 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 124653 | 126843 | 127867 | 101596 | 119004 | 126571 | **% 17,1** | **% 1,5** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 113090 | 114392 | 114911 | 91249 | 103175 | 127474 | **% 13,1** | **% 12,7** |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **118094** | **119784** | **120520** | **95714** | **110018** | 108173 | % 14,9 | -% 8,4 |
| **Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira** | **114539** | **116521** | **117651** | **93872** | **107389** | **113856** | **% 6,0** | **-% 0,6** |

| Tartea | MHSren erakarpenaren % | | | | | | Ekarpen-tasaren igoeraren % [4] | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2021-2022 | 2017-2022 |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 11,4 | 11,9 | 11,8 | 10,8 | 11,0 | % 11,4 | **0,4** | **0,0** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 9,6 | 10,1 | 9,9 | 8,9 | 9,2 | % 9,5 | **0,3** | **-0,1** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 9,2 | 9,8 | 9,7 | 8,6 | 9,0 | % 9,2 | **0,2** | **0,0** |
| **Ortuellako L. – Gurutzetako L. azpitartea** | **9,7** | **10,3** | **10,2** | **9,0** | **9,4** | **% 9,7** | **0,3** | **0,0** |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 9,5 | 10,1 | 10,1 | 9,1 | 9,3 | % 9,4 | **0,1** | **-0,1** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 11,1 | 11,8 | 12,0 | 11,1 | 11,6 | % 10,0 | **- 1,6** | **-1,1** |
| **Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea azpitartea** | **10,4** | **11,0** | **11,1** | **10,2** | **10,5** | **% 10,4** | **- 0,1** | **0,0** |
| **Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira** | **10,1** | **10,7** | **10,7** | **9,6** | **9,9** | **% 10,1** | **0,3** | **0,0** |

3.4.2.c Taula.

## Trafikoaren bilakaera korridorean. Erakarpenaren % (Ibilgailu astunak/egun)

| | Trafikoaren bilakaera (EBI) | | | | | | Urteko hazkundearen % | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2021-2022 | 2017-2022 |
| **A-8 (Sol. HEGOALDEA-UGALDEBIETA)** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 5570 | 5701 | 5591 | 4384 | 4641 | 5354 | **% 15,4** | **-% 3,4** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 6611 | 6748 | 6662 | 5453 | 5884 | 6272 | **% 6,6** | **-% 5,1** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 7696 | 7872 | 7777 | 6489 | 6952 | 7106 | **% 2,2** | **-% 7,7** |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | **6868** | **7021** | **6926** | **5683** | **6091** | 6445 | **% 5,8** | **-% 6,2** |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 4113 | 4135 | 4094 | 3528 | 3887 | 4128 | **% 6,2** | **% 0,4** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 3055 | 3128 | 3105 | 2466 | 2683 | 4128 | **% 53,9** | **% 35,1** |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **3514** | **3565** | **3534** | **2927** | **3206** | 2907 | **-% 9,3** | **-% 17,3** |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **5122** | **5222** | **5161** | **4248** | **4589** | **4879** | **% 6,3** | **-% 4,7** |
| **METROPOLIAREN HEGO. SAIHES.** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 2279 | 2457 | 2513 | 2242 | 2488 | 2580 | % 3,7 | % 13,2 |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 2379 | 2560 | 2628 | 2356 | 2625 | 2734 | % 4,2 | % 14,9 |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 2658 | 2882 | 2958 | 2625 | 2989 | 3029 | % 1,3 | % 14,0 |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | 2496 | 2697 | **2767** | **2450** | **2757** | 2847 | % 3,3 | % 14,1 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 2658 | 2882 | 2958 | 2625 | 2989 | 3029 | % 1,3 | % 14,0 |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 3316 | 3534 | 3664 | 3294 | 3705 | 3749 | % 1,2 | % 13,1 |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **3017** | **3238** | **3343** | **2981** | **3370** | 3419 | % 1,5 | % 13,3 |

4 Erakarpen-portzentajeen aldea

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **2755** | **2966** | **3053** | **2714** | **3061** | **3118** | % 1,9 | % 13,2 |
| **KORRIDOREA, GUZTIRA** | | | | | | | | |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 7849 | 8158 | 8104 | 6626 | 7129 | 7934 | % 11,3 | % 1,1 |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 8990 | 9308 | 9290 | 7809 | 8509 | 9006 | % 5,8 | % 0,2 |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 10354 | 10754 | 10735 | 9114 | 9941 | 10135 | % 2,0 | -% 2,1 |
| **Azpit. Ortuellako L. – Gurutzetako L.** | **9364** | **9718** | **9693** | **8133** | **8848** | 9292 | % 5,0 | -% 0,8 |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 6771 | 7017 | 7052 | 6153 | 6876 | 7157 | % 4,1 | % 5,7 |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 6371 | 6662 | 6769 | 5760 | 6388 | 7877 | % 23,3 | % 23,6 |
| **Azpit. Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea** | **6531** | **6803** | **6877** | **5909** | **6576** | 6326 | -% 3,8 | -% 3,1 |
| **Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira** | **7877** | **8188** | **8214** | **6962** | **7650** | **7997** | % 4,5 | % 1,5 |

| **Tartea** | **MHSren erakarpenaren %** | | | | | | **Ekarpen-tasaren igoeraren %** [5] | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **2017** | **2018** | **2019** | **2020** | **2021** | **2022** | **2021-2022** | **2017-2022** |
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 29,0 | 30,1 | 31,0 | 33,8 | 34,9 | 32,5 | **-2,4** | **3,5** |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 26,5 | 27,5 | 28,3 | 30,2 | 30,8 | 30,4 | **-0,4** | **3,9** |
| Trapagarango L. - Gurutzetako L. | 25,7 | 26,8 | 27,6 | 28,8 | 30,1 | 29,9 | **-0,2** | **4,2** |
| **Ortuellako L. – Gurutzetako L. azpitartea** | **26,7** | **27,8** | **28,5** | **30,1** | **31,2** | **30,6** | **-0,6** | **3,9** |
| Gurutzetako L. – Bilbo Hegoaldea | 39,3 | 41,1 | 41,9 | 42,7 | 43,5 | 42,3 | **-1,2** | **3,0** |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 52,1 | 53,0 | 54,1 | 57,2 | 58,0 | 47,6 | **-10,4** | **-4,5** |
| **Gurutzetako L. – Bilbo Ekialdea azpitartea** | **46,2** | **47,6** | **48,6** | **50,5** | **51,2** | **54,0** | **2,8** | **7,8** |
| **Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira** | **35,0** | **36,2** | **37,2** | **39,0** | **40,0** | **39,0** | **0,3** | **4,0** |

[5] Erakarpen-portzentajeen aldea

## 3.4.3 ARTXANDAKO TUNELAK



Ahalmen handiko hiru bide daude Bilbora sartzeko, eta lotura daukate N-637 errepidearekin (Txorierri):

- Enekuri (BI-604),
- Egirleta (BI-631)
- Artxandako Tunelak (BI-626/BI-627)

Horietatik Bilboko hirigunera sartu eta Bilbotik irteten den trafiko osoa 106.609 ibilgailukoa izan da eguneko 2022an, 2021ean erregistratutako 98.022 ibilgailuen aurrean.

Azken hamarkadan, Bilbora sartzeko hiru bide horiek multzoan hartuta, gutxieneko trafikoa 2013an izan zen, ekonomia-krisiaren ondorioz; bada, eguneko 99.751 ibilgailu ibili ziren bertatik. Urte horretatik aurrera, trafikoak gora egin du, krisiaren aurreko balioak gainditzeraino.

2020an, ibilgailuen trafikoa jaitsi egin zen (85.108 ibil./egun), eta gutxieneko berri bat finkatu zen, 2013an erregistratutako datuen azpitik.

Pixkaka, trafikoa suspertu egin da: 2021ean, 98.022 ibilgailu ibiltzen ziren eguneko, eta, 2022an, 106.609 ibilgailu eguneko, 2018an erregistratutako gehienekotik hurbil. Hala, 2021arekin alderatuta, % 8,8ko hazkundea egon da.

Balio absolutuetan, Enekuriko (BI-604) trafikoa egunean 4.300 inguru ibilgailutan igo da (+% 9,8), eta Egirletako (BI-631) trafikoa egunean 1.100 ibilgailutan (+% 3,2). Artxandako Tuneletan, berriz, 2022ko batez besteko trafikoa 3.100 ibilgailutan igo da egunean (+% 16,8).

2013tik, Artxandako Tuneletako parte-hartzearen ehunekoa urtez urte haziz joan da, eta, 2019an, korridoreko guztizko trafikoaren % 18,1 hartu zuen. Aurten, ordea, korridore osoa aintzat hartuz gero, Artxandako Tuneletako parte-hartzea guztizkoaren % 20,3 izan da.

## Trafikoaren banaketa Bilborako N-637 errepidearen bidezko sarbideen artean

| Urtea | ENEKURI (BI 604) | | ARTXANDAKO TUNELAK (BI-626/BI-627) | | EGIRLETA (BI-631) | | GUZTIRA | ∆ % EBI Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EBI | Parte-hartzearen % | EBI | Parte-hartzearen % | EBI | Parte-hartzearen % | EBI | |
| 2008 | 48580 | % 47,3 | 17647 | % 17,2 | 36443 | % 35,5 | 102670 | -0.1. |
| 2009 | 49544 | % 49,0 | 15276 | % 15,1 | 36229 | % 35,9 | 101049 | -1,6 |
| 2010 | 51336 | % 49,9 | 15589 | % 15,2 | 35853 | % 34,9 | 102778 | 1,7 |
| 2011 | 51528 | % 49,8 | 15494 | % 15,0 | 36356 | % 35,2 | 103378 | 0,6 |
| 2012 | 52633 | % 50,7 | 14968 | % 14,4 | 36172 | % 34,9 | 103773 | 0,4 |
| 2013 | 51375 | % 51,5 | 14597 | % 14,6 | 33779 | % 33,9 | 99751 | -3,9 |
| 2014 | 51959 | % 51,2 | 15539 | % 15,3 | 34034 | % 33,5 | 101532 | 1,8 |
| 2015 | 52195 | % 50,7 | 16498 | % 16,0 | 34254 | % 33,3 | 102947 | 1,4 |
| 2016 | 53501 | % 50,7 | 17317 | % 16,4 | 34628 | % 32,8 | 105446 | 2,4 |
| 2017 | 54528 | % 50,9 | 18.064 | % 16,8 | 34640 | % 32,3 | 107232 | 1,7 |
| 2018 | 55371 | % 50,5 | 18589 | % 17,0 | 35607 | % 32,5 | 109567 | 2,2 |
| 2019 | 53221 | % 49,2 | 19579 | % 18,1 | 35309 | % 32,7 | 108109 | -1,3 |
| 2020 | 41954 | % 49,3 | 14236 | % 16,7 | 28918 | % 34,0 | 85.108 | -21,3 |
| 2021 | 44518 | % 45,4 | **18517** | **% 18,9** | 34987 | % 35,7 | 98.022 | 15,2 |
| 2022 | 48860 | % 45,8 | **21.636** | **% 20,3** | 36113 | % 33,9 | 106609 | 8,8 |

# 3.5 ERLETXEKO LOTURAREN ETA TXORIERRIKO KORRIDOREAREN BIDEZKO ERLAZIOAK

Ondoko Taulan, AP-8 autobideak Txorierriko igarobidearen bitartez dituen erlazioen jatorri-helmugako barne-matrizea ageri da, eta Txorierri–Donostiako (Erletxe Ekialdea) erdiloturako mugimenduak eta Txorierri – Bilbo (Erletxe Mendebaldea) tartekoak bereizten dira.

Ikusten denez, Erletxe – Donostia tarteak Kukularrako loturarekin duen erlazioa, guztira, 13.453 ibilg./egun-ekoa da; horietatik: eguneko 4.390 ibilgailu La Avanzada – Getxorekiko erlazioak dira, eta eguneko 9.063 ibilgailu Barakaldorekiko eta Ugaldebieta Irtenbidearekiko loturak. Erlazio horietako batez besteko trafikoak gora egin du, aurreko urtearekin alderatuta; 800 ibilgailu gehiago egunean. Deriorekiko erlazioak ere aipagarriak dira, Donostiarako noranzkoan 3.391 ibilgailu ibili baitira egunean, eta 2021ean 2.820.

Krisi ekonomikoan, Txorierriren eta AP-8 autobidearen arteko erlazioek nabarmen egin zuten behera, eta 2013an egunean 17.266 ibilgailu ibiltzen ziren.
2014tik aurrera, ordea, trafikoak gora egin zuen, eta 2019an iritsi zen goreneko baliora (24.802 ibil. egunean), 2018an erregistratutakoa baino % 9,1 gehiago.

2020an, trafikoak behera egin zuen (17.748 ibil./eg.), baina 2021ean gora egin zuen berriro, 20.690 ibilgailura eguneko, eta 2022an 22.269 ibilgailura eguneko.

Txorierrik Bilborantz dituen adarrei dagokienez, erlazio nagusiak Deriorekikoak dira (3.585 ibil. Egunean), eta, ondoren, Kukularrarekikoak eta Zamudiorekikoak datoz: egunean 3.396 ibilgailu eta 2.268 ibilgailu, hurrenez hurren.

Adar horiek 2011n iritsi ziren goreneko balioetara (10.730 ibil. egunean), baina 2015era bitartean jaisten joan ziren. Hala ere, 2015ean 2011koen antzeko balioak lortu ziren. 2019an, erregistratutako trafikoa 12.002 ibilgailukoa izan zen egunean; hau da, aurreko urtearekin alderatuz gero, % 1,1eko hazkundea egon zen. 2020an, trafikoak behera egin zuen (9.668 ibil./eg.), baina 2021ean gora egin du berriro, % 17,5 (11.362 ibil./eg.). 2022an, balio horrek hazten jarraitu du, % 13,4, eguneko 12.885 ibilgailuraino.

3.4.3.a Taula.

**AP-8 autobideak Txorierriko korridorearekin dituen erlazioak (2022. urtea)**

| Eremuak | A-8a (Erletxe - Donostia) | | A-8a (Erletxe - Bilbo) | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztizkoak | Astunak | Guztizkoak | Astunak |
| 1. Kukularra/Avanzada/Getxo | 4390 | 193 | 1202 | 72 |
| 2. Kukularra/Arrontegi/Santander | 9063 | 1278 | 2194 | 351 |
| 3. Asua/Asua | 294 | 19 | 221 | 36 |
| 4. Asua/Enekuri | 1040 | 74 | 770 | 64 |
| 5. Artxandako T. | 1279 | 49 | 137 | 15 |
| 6. Larrondo | 424 | 45 | 322 | 33 |
| 7. Derio (Derio) | 3391 | 256 | 3585 | 315 |
| 8. Derio (Egirleta) | 422 | 15 | 445 | 11 |
| 9. Zamudio | 1102 | 90 | 2268 | 220 |
| 10. Lezama | 585 | 56 | 1011 | 102 |
| 11. Larrabetzu | 279 | 32 | 730 | 59 |
| **GUZTIRA** | 22.269 | 2107 | 12885 | 1278 |

# 3.6 ZERBITZU-MAILEN AZTERKETA

## 3.6.1 AP-8 AUTOBIDEA: USANSOLO – GIPUZKOAREKIKO MUGA

Ahalmen handiko bide baten zerbitzuaren intentsitatea honela formulatu daiteke, 15 minutuko puntako aldian, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c):

$$IS = \frac{Q_H}{FHP \times N \times F_A \times F_{VP} \times F_C}$$

- $Q_H$ Trafikoaren bolumena proiektu-orduan, orduko ibilgailu-kopuru osoa aintzat hartuta (v/h), zirkulazioaren noranzko batean.
- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea (IH-30) EBIren % 11,5ekoa dela kalkulatu da.
- Trafikoak noranzko bakoitzeko duen batez besteko banaketa, puntako orduan, % 60-40koa da.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95 (nolabaiteko erregulartasuna adierazten du, puntako orduan).
- $F_A$ = 1,0 (3,5 m-ko erreiak eta 2,0 m-ko bazterbideak)
- $F_C$ = 0,95 (ohikoak ez diren gidarien presentzia, batez ere asteburuan)
- $F_{VP}$ = 1 / 1 + $P_C$ ($E_C$ - 1)
    - $P_C$ = astunen %a
    - EC = ibilgailu arinen baliokidea. EC = 2 hartu da
- N = Galtzada bakoitzeko errei-kopurua (zirkulazio-noranzko bat).

Trafikoak intentsitaterik handieneko norabidean proiektu-orduan izandako bolumena EBIn oinarrituz lortzen da, ondoren adierazitakoaren arabera:

$Q_H$ = 0,115 x 0,60 x EBI = 0,069 EBI

$$IS = \frac{0{,}069 \cdot IMD}{0{,}95 \times N \times 1 \times F_{VP} \times 0{,}95} = \frac{0{,}076 \cdot IMD}{N \times F_{VP}} vl/h/c$$

AP-8 autobideak 3,5 metroko zabalera eta 2,5 metroko kanpo-bazterbidedun erreiak eduki ditu beti, fluxu askeko 120 km/orduko oinarrizko abiadura (VLB) eskainita.

Hala eta guztiz ere, zerbitzuaren gaitasuna eta maila aztertze aldera, 2010. urteko Ahalmen Gidaliburuak dio oinarrizko abiadura horri aplikatu egin behar zaizkiola zuzenketa-faktore batzuk, abiadura aske erreala (VL) eskuratze aldera. Horretarako, jarraian adieraziko den adierazpena aplikatuko da, autobidearen kasurako:

$$VL = VLB – F_A – F_O - F_E$$

Hau da:

- $F_A$ = Erreiaren zabaleraren faktorea (3,6 m-rako: 0, 3,5 m-rako: -1 km/h). Ondorio praktikoetarako, ez da egokitzat jotzen abiadura askea kontzeptu horrengatik murriztea.
- $F_O$ = Alboko oztopoaren faktorea (2,5 m-rako: 0 km/h).
- $F_E$= Loturen arteko banaketaren faktorea (≥ 3 km-rako: 0, 2,5 km-rako: -1,1 km/h, 2 km-rako: -2,1 km/h, 1,7 km-rako: -3,9 Km/h).

Aurreko guztia aintzat hartuta, loturen maiztasun-arrazoiak direla-eta, El Gallo/Urgoitiren eta Erletxeren artean dauden tarteek 2 km/h-tan jaitsi dute abiadura, eta Boroa Mendebaldearen eta Boroa Ekialdearen arteko tarteak 4 km/h-tan; beraz, 116 km/h, 118 km/h eta 116 km/h-ko abiadura dute, hurrenez hurren.

AP-8 autobidearen gainerakoan, abiadura askea 120 km/h-koa da, 2.6.1 a) eta 2.6.1 b) tauletan ikus daitekeen moduan.

Proiektu-orduko zirkulazioaren dentsitatea $D_S$ = $I_S/V_L$ koefizientearekin zehazten da, km-ko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/km/c).

| ZERBITZU-MAILA | | A | B | C | D | E |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INTENTSITATEA (IS) (Vl/h/c) | VL: 120 km/h | 840 | 1320 | 1840 | 2200 | 2400 |
| | VL: 115 km/h | 805 | 1265 | 1790 | 2170 | 2375 |
| Dentsitatea (DS) (Vl/Km/c) | | 7 | 11 | 16 | 22 | 28 |

Taula honetan, zerbitzuaren intentsitateen ($I_S$) eta dentsitateen ($D_S$) kalkuluak jasotzen dira, baita tarteen araberako zerbitzu-mailak ere (ZM), 2003., 2021. eta 2022. urteetarako. Tauletan, AP-8ko trafiko-mailen (EBI) eta horiei dagozkien zerbitzu-mailen (ZM) alderaketa ebolutiboa egin daiteke.

3.6.1.a Taula.

**Zerbitzu-mailak, tarteen arabera. 2003. urtea**

| Tarteak | Luzera (km) | Abiad. askea (AA) | Kop. Erreiak | EBI | Astunen %a | Fvp | IS (vl/h/c) | D (vl/km/c) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| El Gallo/Urgoiti-Erletxe | 2,47 | 118 | 2 | 31615 | 12,7 | 0,887 | 1354 | 11,5 | C |
| Erletxe – Amorebieta M | 3,13 | 120 | 2 | 36192 | 12,8 | 0,887 | 1551 | 12,9 | C |
| Amorebieta M. - Amorebieta E. | 3,70 | 120 | 2 | 28292 | 12,4 | 0,890 | 1208 | 10,1 | B |
| Amorebieta E – Iurreta | 8,20 | 120 | 2 | 29597 | 12,4 | 0,890 | 1264 | 10,5 | B |
| Iurreta-Ermua | 12,72 | 120 | 2 | 20945 | 15,6 | 0,865 | 920 | 7,7 | B |
| Ermua - LHM (Gipuzkoa) | 0,70 | 120 | 2 | 19840 | 17,5 | 0,851 | 886 | 7,4 | B |
| **Guztira** | **30,92** | **119** | **2** | **27781** | **13,8** | **0,879** | | | |

3.6.1.b Taula.

**Zerbitzu-mailak, tarteen arabera. 2022. urtea**

| Tarteak | Luzera (km) | Abiad. askea (AA) | Kop. Erreiak | EBI | Astunen %a | Fvp | IS (vl/h/c) | D (vl/km/c) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| El Gallo/Urgoiti-Erletxe | 2,47 | 118 | 3 | 37056 | % 9,7 | 0,912 | 1036 | 8,8 | B |
| Erletxe - Boroa M. | 3,13 | 120 | 3 | 46441 | % 9,5 | 0,913 | 1296 | 10,8 | B |
| Boroa M. – Boroa E. | 1,14 | 116 | 3 | 34675 | % 10,0 | 0,909 | 972 | 8,4 | B |
| Boroa E.- Amorebieta E. | 2,56 | 120 | 2 | 35680 | % 10,0 | 0,909 | 1500 | 12,5 | C |
| Amorebieta E – Iurreta | 8,20 | 118 | 3 | 38889 | % 10,0 | 0,909 | 1090 | 9,2 | B |
| Iurreta-Abadiño | 3,50 | 120 | 3 | 36496 | % 12,4 | 0,890 | 1045 | 8,7 | B |
| Abadiño - Ermua | 7,52 | 120 | 2 | 26312 | % 14,1 | 0,876 | 1148 | 9,6 | B |
| Ermua - LHM (Gipuzkoa) | 2,40 | 120 | 2 | 22098 | % 16,7 | 0,857 | 986 | 8,2 | B |
| **Guztira** | **30,92** | **119** | **2** | **34450** | **% 11,3** | | | | |

2022ko zerbitzu-mailak B eta C dira tarte guztietan.

Erantsitako Taulan, A, B eta C zerbitzu-mailek 2003an eta 2022an izandako tarte- eta kilometro-kopurua jasotzen da.

3.6.1.c Taula.

| Kontzeptua | 2003. urtea | | | | 2022. urtea | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | A maila | B maila | C maila | Guztira | A maila | B maila | C maila | Guztira |
| Tarte-kop. | - | 4 | 2 | 6 | | 7 | 1 | 8 |
| Km-kop | - | 25,32 | 5,6 | 30,92 | | 28,36 | 2,56 | 30,92 |

## 3.6.2 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA

Baldin eta Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean ahalmen handiko bide baten zerbitzuaren intentsitateari buruzko adierazpen bera erabiltzen badugu, 15 minutuko muturreko aldian, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c), ondoren adierazitakoaren arabera formulatu ahal da:

$$IS = \frac{Q_H}{FHP \times N \times F_A \times F_{VP} \times F_C}$$

Hau da,

- $Q_H$ Trafikoaren bolumena proiektu-orduan, orduko ibilgailu-kopuru osoa aintzat hartuta (v/h), zirkulazioaren noranzko batean.
- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea (IH-30) EBIren % 10ekoa dela kalkulatu da.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95 (nolabaiteko erregulartasuna adierazten du, puntako orduan).
- $F_A$ = 1,0
- $F_C$ = 0,95 (ohikoak ez diren gidarien presentzia, batez ere asteburuan)
- $F_{VP}$ = 1 / 1 + $P_C$ ($E_C$ - 1)
    - $P_C$ = astunen %a
    - EC = ibilgailu arinen baliokidea. EC = 2 hartu da
- Galtzada bakoitzeko errei-kopurua (zirkulazio-noranzko bat).

Trafikoak intentsitaterik handieneko norabidean proiektu-orduan izandako bolumena EBIn oinarrituz lortzen da, ondoren adierazitakoaren arabera:

$Q_H$ = 0,10 x EBI = 0,10 EBI

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea 3,5 m zabaleko erreiekin eta 1 m-ko kanpo-bazterbideekin diseinatu da hiru erreiko tuneleko sekzioetan, 2,5 m-ko eta 1 m-ko bazterbidearekin bi erreiko tuneleko sekzioetan, eta 2,5 m-ko bazterbidearekin gainerako tarteetan.

Hortaz, honelakoa da zerbitzu-intentsitatearen adierazpena:

$$IS = \frac{0{,}10 \cdot IMD}{0{,}95 \times N \times 1 \times F_{VP} \times 0{,}95} = \frac{0{,}111 \cdot IMD}{N \times F_{VP}} vl/h/c$$

Abiadura askeari dagokionez, 120 km/h-ko abiadurarako sortu da Hegoaldeko Saihesbidea, baina, hainbat baldintza tarteko, abiadura hori 80 km/h-ra murrizten da tarte askotan. Hori dela-eta, horixe da fluxu askeko oinarrizko abiadura (VLB), zerbitzu-mailak aztertzeko.

Hala eta guztiz ere, zerbitzuaren gaitasuna eta maila aztertze aldera, 2010. urteko Ahalmen Gidaliburuak dio oinarrizko abiadura horri aplikatu egin behar zaizkiola zuzenketa-faktore batzuk, abiadura aske erreala (VL) eskuratze aldera. Horretarako, jarraian adieraziko den adierazpena aplikatuko da, autobidearen kasurako:

$$VL = VLB – F_A – F_O - F_E$$

Hau da:

- $F_A$ = Erreiaren zabaleraren faktorea (3,6 m-rako: 0, 3,5 m-rako: -1 km/h). Ondorio praktikoetarako, ez da egokitzat jotzen abiadura askea kontzeptu horrengatik murriztea.
- $F_O$ = Alboko oztopoaren faktorea (2,5 m-rako: 0 km/h, 1 m-rako: -2 km/h).
- $F_E$= Loturen arteko banaketaren faktorea (≥ 3 km-rako: 0, 2,5 km-rako: -1,1 km/h, 2 km-rako: -2,1 km/h, 1,7 km-rako: -3,9 Km/h).

Hori guztia kontuan hartuta, zerbitzu-mailak aztertzeko, 78 km/h-ko abiadura hartuko da aintzat 3 erreiko tuneleko sekzioetan, eta 80 km/h-koa, berriz, saihesbideko gainerako tarteetan.

Proiektu-orduan dagoen zirkulazio-dentsitatea honako zatidura honen bidez definitzen da:
$D_S$ = $I_S$/$V_L$, km-ko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c).

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen tarte osoak A zerbitzu-maila dauka, 2022. urtean erregistratutako datuen arabera.

| ZERBITZU-MAILA | | A | B | C | D | E |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INTENTSITATEA (IS) (Vl/h/c) | VL: 80 lm/h | 560 | 880 | 1280 | 1760 | 2240 |
| | VL: 75 lm/h | 525 | 825 | 1200 | 1650 | 2100 |
| Dentsitatea (DS) (Vl/Km/c) | | 7 | 11 | 16 | 22 | 28 |

3.6.2.a Taula.

**Zerbitzu-mailak, tarteen arabera. 2023. urtea**

| Tarteak | Luzera (km) | Abiad. askea (AA) | Kop. Erreiak | EBI | Astunen %a | Fvp | IS (vl/h/c) | D (vl/km/c) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bilbo Ekialdea - Bilbo Hegoaldea | 4,10 | 78 | 3 | 5659 | 31,3 | 0,76 | 275,02 | 3,48 | A |
| Bilbo Hegoaldea - Trapagarango L. | 7,15 | 78 | 3 | 4980 | 28,1 | 0,78 | 236,10 | 3,02 | A |
| Trapagarango L. – Santurtziko L. | 2,25 | 80 | 2 | 4144 | 30,2 | 0,77 | 299,42 | 3,80 | A |
| Santurtziko L. – Ortuellako L. | 2,0 | 80 | 2 | 3594 | 32,6 | 0,75 | 264,51 | 3,28 | A |
| **Bilbo Ekialdea - Ortuellako L. guztira** | **15,50** | **79** | **3** | **4860** | **29,8** | 0,77 | 233,43 | 2,93 | **A** |

| Tarteak | Luzera (km) | Abiad. askea (AA) | Kop. Erreiak | EBI | Astunen %a | Fvp | IS (vl/h/c) | D (vl/km/c) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ortuellako L. – Santurtziko L. | 2,0 | 80 | 2 | 5378 | % 26,1 | 0,79 | 376,51 | 4,71 | A |
| Santurtziko L. – Trapagarango L. | 2,25 | 80 | 2 | 5986 | % 24,8 | 0,80 | 414,47 | 5,18 | A |
| Trapagarango L. – Bilbo Hegoaldea | 7,15 | 78 | 3 | 6911 | % 23,6 | 0,81 | 315,94 | 4,05 | A |
| Bilbo Hegoaldea – Bilbo Ekialdea | 4,1 | 78 | 3 | 7136 | % 27,6 | 0,78 | 336,96 | 4,32 | A |
| **Ortuellako L. – Bilbo Ekialdea guztira** | **15,50** | **79** | **3** | **6639** | **27,6** | 0,80 | 307,40 | 3,95 | **A** |



# 3.6.3 ARTXANDAKO TUNELAK

## 3.6.3.1 Salbe - Txorierri tunela

Salbe – Txorierri tunela aztertzean, kontuan hartu da errei anitzeko errepidea dela eta galtzada bakarrak osatzen duela, Txorierrirantz bi errei eta Salberantz errei bat dituenak. Ahalmen handiko bide baten zerbitzuaren intentsitateari buruzko adierazpena, 15 minutuko muturreko aldian, orduko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c).

$$IS = \frac{Q_H}{FHP \times N \times f_{VP}}$$

Hau da,

- $Q_H$ Trafikoaren bolumena proiektu-orduan, orduko ibilgailu-kopuru osoa aintzat hartuta (v/h), zirkulazioaren noranzko batean.
- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea EBIren % 13 dela kalkulatu da noranzko bakoitzerako.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95.
- $f_{VP}$ = 1 / 1 + $P_{vp}$ ($E_{vp}$ - 1)
    - $P_{vp}$ = astunen %a
    - Evp = Ibilgailu arinen baliokidea. Evp = 2 hartu da
- N = Zirkulazio-noranzko bakoitzeko errei-kopurua

Trafikoak intentsitaterik handieneko norabidean proiektu-orduan izandako bolumena EBIn oinarrituz lortzen da, ondoren adierazitakoaren arabera:

$Q_H$ = 0,13 x EBI = 0,13 EBI

Hortaz, honelakoa da zerbitzu-intentsitatearen adierazpena:

$$IS = \frac{0{,}13 \cdot IMD}{0{,}95 \times N \times f_{VP}} = \frac{0{,}137 \cdot IMD}{N \times f_{VP}} vl/h/carril$$

Abiadura askeari dagokionez, tunelak abiadura handiagorako aurreikusi dira, baina, segurtasun-baldintzak tarteko, abiadura hori 80 km/h-koa da tunelen barruan. Hori dela-eta, horixe da fluxu askeko oinarrizko abiadura (VLB), zerbitzu-mailak aztertzeko.

Proiektu-orduan dagoen zirkulazio-dentsitatea honako zatidura honen bidez definitzen da:
$D_S$ = $I_S$/$V_L$, km-ko eta erreiko ibilgailu arinetan adierazita (vl/h/c).

Ikus daitekeenez, 2022. urtean erregistratutako datuen arabera, Salbe – Txorierri tunelak A zerbitzu-maila dauka Txorierrirantz, eta C zerbitzu-maila, berriz, Salberantz.

| ZERBITZU-MAILA | | A | B | C | D | E |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INTENTSITATEA (IS) (Vl/h/c) | VL: 80 lm/h | 560 | 880 | 1280 | 1760 | 2240 |
| | VL: 75 lm/h | 525 | 825 | 1200 | 1650 | 2100 |
| Dentsitatea (DS) (Vl/Km/c) | | 7 | 11 | 16 | 22 | 28 |

3.6.3.a Taula.

**Zerbitzu-mailak, tarteen arabera. 2022. urtea**

| Tarteak | Luzera (km) | Abiad. askea (AA) | Kop. Erreiak | EBI | Astunen %a | fvp | IS (vl/h/c) | D (vl/km/c) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Txorierrirantz | 2,0 | 80 | 2 | 7705 | % 3,32 | 0,968 | 545 | 6,82 | **A** |
| Salberantz | 2,0 | 80 | 1 | 8004 | % 3,32 | 0,968 | 1133 | 14,16 | **C** |

### 3.6.3.2 Ugasko – Txorierri eta Salbe – Ugasko tunelak

Ugasko – Txorierri eta Salbe – Ugasko tunelak aztertzeko, 2010. urteko Ahalmen Eskuliburuan bi erreiko errepideetarako azaltzen den metodologia erabili da. Luzera txikiko bideak direnez, kalkulurako kontuan hartu da II. mailakoak direla. Horietan, zerbitzu-maila proiektuko muturreko orduan emandako denboraren ehunekoaren mendean dago (IH-30) (berandutzearen %), ibilbidearen batez besteko abiadura kontuan hartu gabe.

Bi erreiko errepide baten ahalmena 1.700 ibilgailu/h-koa da, ibilbidearen noranzko bakoitzerako, eta orduko 3.200-3.400 ibilgailuko balioetara heldu ahal da noranzko bietan.

Berandutzearen denbora-ehunekoari (PTSF) dagokion adierazpena:

$$PTSF = BPTSF + f_{d/np}\left(\frac{v_d}{v_d + v_o}\right)$$

$$BPTSF = 100 \quad (1 - e^{a\ Vd^b})$$

$$v_d = \frac{Q_d}{FHP\ x\ f_G\ x\ f_{VP}}$$

$$v_o = \frac{Q_o}{FHP\ x\ f_G\ x\ f_{VP}}$$

Hau da,

- Qd, Qo Trafikoaren muturreko bolumena proiektu-orduan, aztertutako zirkulazio-noranzkoan eta kontrakoan (ibilg./ordu), hurrenez hurren.
- Trafikoak 30. orduan duen intentsitatea EBIren % 13 dela kalkulatu da noranzko bakoitzerako.
- MOF (muturreko orduko faktorea) = 0,95.
- $f_G$ kontzeptuan, lurzoruaren eragina kontuan hartzen da, % 3tik gorako eta 0,4 km-ko luzeratik gorako arrapaletan.
- $f_{VP} = 1 / 1 + P_{vp} (E_{vp} - 1)$
    - $P_{vp}$ = astunen %a
    - Evp = Ibilgailu arinen baliokidea. Evp = 1 hartu da
- $V_d$: trafikoaren intentsitatea kalkuluaren noranzkoan (ibilg./h)
- $v_o$: trafikoaren intentsitatea kalkuluaren aurkako noranzkoan (ibilg./h)
- a eta b: BPTSF kalkulatzeko parametroak, aurkako trafikoaren intentsitatearen arabera
- $f_{d/np}$ trafikoaren norabide-banaketaren ondorioz eta aurreratzea debekatuta duten guneen ehunekoaren ondorioz gertatzen den berandutze-ehunekoaren gehikuntza da (kasu honetan, tuneleko tartea denez, aurreratzea % 100ean debekatuta dagoela uste da).

Ugasko – Txorierri tunelerako eta Salbe – Ugasko tunelerako zerbitzu-maila D da, proiektu-orduko (IH-30).

| ZERBITZU-MAILA | A | B | C | D | E |
|---|---|---|---|---|---|
| Berandutzearen % (PTSF) II. mota | < 40 | 40- 55 | 55- 70 | 70- 85 | > 85 |

3.6.3.b Taula.

**Zerbitzu-mailak, tarteen arabera. 2022. urtea**

| Tarteak | Luzera (km) | EBI | Astunen %a | fvp | $f_G$ | Vd (ibil/h) | Vo (ibil/h) | a | b | BPTSF | $f_{d/np}$ | PTSF (%) | ZM |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ugasko - Txorierri tunela | 1,5 | 5926 | 3,32 | 1 | 0,93 | 459 | 442 | -0,0018 | 0,948 | 45,1 | 56,8 | 74,1 | **D** |
| Salbe – Ugasko tunela | 1,1 | 8194 | 3,32 | 1 | 1 | 580 | 578 | -0,0045 | 0,833 | 59,4 | 26,97 | 73,0 | **D** |



# 4 Egindako eta aurreikusitako jarduketen eragina

## 4.1 EGINDAKO JARDUKETAK

D003. urteaz geroztik, AP-8 autobidea handitzeko eta hobetzeko hainbat jarduketa abiarazi dira, eta, horri esker, zerbitzu-maila eta segurtasun-maila egokiei eusteko modua izan da autobide horretan. Laburpen modura, berriki egin diren jarduketak azalduko dira ondoren.

### 2011. urtea

2011ko irailean, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea (MHS) zerbitzuan jarri zen Ortuellako loturaren eta Bilbo Ekialdeko loturaren artean, eta, hala, A-8aren korridoreko trafikoan eragina izan du.

### 2012. urtea

2012ko ekainean, Iurretaren eta Abadiñoren arteko tartea hiru erreira handitzeko lanak inauguratu ziren (Iurretako ordainlekutik eta Abadiñoko Gerediaga auzunera), guztira 4,7 km. Halaber, trafikorako ireki zen Abadiñoko lotura berria, A-8 autobidea eta N-634, N-636 (Abadiño eta Elorrio) eta BI633 (Berriz, Markina eta Lea Artibai) lotzeko.

### 2016. urtea

2016ko abuztuan, Elorrioren eta Gerediagaren arteko autobideko obrak inauguratu ziren, AP-8 autobidea eta BI-632 errepideak lotzen dituena eta Elorrioko Saihesbideari jarraipena ematen diona, baita N-636 errepidearekiko lotunea ere Muntsaratz aldean, Abadiñoko eta Atxondoko herrietara eta industrialdeetara joan ahal izateko.

### 2018. urtea

2018ko urtarrilean, Urdinbideko tunela ireki zen, eta Amorebietaren eta Muxikaren arteko BI-635 errepidea seguruagoa eta irisgarriagoa egingo duen jarduketa baten bukaera da.

Halaber, Uretamendiko tunela eta Ermuko lotura berria (Eitzaga) jarri ziren zerbitzuan. Urtarriletik irailera bitartean, Ermuko Hegoaldeko Saihesbidearen bigarren faseko obrak egin ziren, Eibarko Saihesbideko biribilgunea eta Areitiotik datorren N-634 errepidea lotzeko.

## 4.1.1 ERMUKO HEGOALDEKO SAIHESBIDEA IREKITZEA

2018ko urtarrilean, Uretamendiko tunela eta ordainlekuko kabina berriak jarri ziren martxan Eitzaga aldean, San Lorenzon zeudenak ordezkatuz. Irailean, Ermuko Hegoaldeko Saihesbidearen bigarren faseko obrak egin ziren, Eibarko Saihesbideko biribilgunea eta Areitiotik datorren N-634 errepidea lotzeko.

Obra horiek eragin handia izan dute Ermuko loturan 2018an erregistratutako batez besteko trafikoan.
Saihesbide berria martxan jartzearekin eta ordainlekuetako kabinen kokapen berriarekin, Ermua Ekialdeko loturaren erabilerak (Gipuzkoako mugara begira dauden adarrak) eta Ermua Mendebaldeko loturaren erabilerak (Abadiñorekin, Iurretarekin eta Iurretako enbor-hesiarekiko lotura) oso bilakaera desberdina izan dute.

### 4.1.1.1 Ermua Mendebaldeko lotura

Ermua Mendebaldearen loturan, 2018an, batez beste 1.100 ibil./egun inguru murriztu zen trafikoa obrak egin bitartean, urtarriletik irailera. Lanak amaitutakoan, saihesbidea martxan jarri zen, eta trafikoak 2017an erregistratutako batez besteko balioen antzekoak berreskuratu zituen.

Funtzionamenduko lehen urtearen ondoren, hesia lekuz aldatzeak zirkulazioa handitzea ekarri zuen mendebalderantz orientatutako adarretan. Izan ere, ibilgailu guztien eguneko batez besteko intentsitatea, 2019an, 6.250 ibilgailukoa zen eguneko, 2017an erregistratutakoa baino % 5,8 handiagoa. 2022an, egunean 5.946 ibilgailu erregistratu dira, pandemiaren aurretik erregistratutako trafikotik behera oraindik ere.

### 4.1.1.2 Ermua Ekialdeko lotura

2019an, lotura honetako trafikoak gora egin zuen aurreko urtearekin alderatuta, baina, ordainlekuaren kokapena San Lorenzotik Eitzaga aldera aldatzearen ondorioz, Gipuzkoara bideratutako adarretako ibilgailu arinen trafikoa murriztu egin da.

Horrela, Ermua Ekialdeko loturako ibilgailuen eguneko batez besteko intentsitatea 2.409 ibilgailukoa zen 2017an, eta 1.826 ibilgailukoa 2019an; hau da, ibilgailu guztietan % 24,2 gutxiago. 2022an, loturako trafikoa 1.733 ibilgailukoa izan da eguneko.

Trafikoa gutxitu izanak autobidera sartzeko zirkulazioari eta lotura honetatik ateratzen diren ibilgailuei eragin die.

### 4.1.1.3 Karbonoaren isuriak murrizteko neurriak

Karbonoaren isuriak murriztuko dituen mugikortasun bateranzko trantsizioari bide emango dioten jarduketak sustatze aldera, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak jarri dira Peñaskal, Iurreta eta Artxandako kontrol-zentroetan, ibilgailu elektrikoen flota bat eduki ahal izan dezagun bide-sarean operazio-, kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko.

Gainera, 2022ko urtarriletik, % 25eko deskontua aplikatzen zaio bidesari-tarifen zenbatekoari, ibilgailu arin elektriko puruek egiten dituzten ibilbide guztietan, betiere identifikatzeko eta ordaintzeko OBEa erabiltzen badute.

| JARDUKETEN EGUTEGIA | Hasiera | Amaiera |
|---|---|---|
| Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea, 1-B fasea | 2019 | 2023 |
| Ibai azpiko tunela eraikitzeko proiektua | 2020 | 2023 |
| Bizkaiko ordainlekuen digitalizazioa | 2021 | - |
| Karbonoaren isuriak murrizteko neurriak | 2021 | - |

# 4.2 ARIBIDEKO ETA AURREIKUSITAKO JARDUKETAK

## 4.2.1 METROPOLIAREN HEGOALDEKO SAIHESBIDEA. 1B FASEA

Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea AP-68arekin lotzeko 1B fasea 2023aren hasieran amaitu zen, eta 2023ko apirilaren 5ean inauguratu.

Fase honetan, lau egitura handi eta konplexu egin dira, 4,7 kilometroko luzeran, eta Arnotegiko eta Seberetxeko tunelak gurutzatzen dituzte, bai eta AP-68aren nahiz Bolintxu bailararen gainetik igarotzen diren biaduktuak ere.

Beraz, amaituta dago Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea N-644 errepidearekin, A-8arekin eta AP-68arekin mendebalderantz lotzeko konexioa.

Gainera, konpentsazio modura, bizikletentzako eta oinezkoentzako bidexka bat eraikiko da Buiaren eta Beteluriren artean, 2 metroko zabalera izango duena, Abusuren eta La Peñaren artekoa osatzeko, BI-3723 errepidearen galtzada zabalduz.

## 4.2.2 IBAI AZPIKO TUNELA ERAIKITZEKO PROIEKTUA

2022an, itsasadarraren azpian ibai azpiko tunel bat eraikitzeko proiektua idazten amaitzeko lanekin jarraitzen dute.

Obra hori Arrontegiko zubiaren ordezko aukera izango da, eta Bizkaiko metropoliko saihesbide handia osatuko du. Bada, lehen kalkuluen arabera, egunean batez beste 51 mila ibilgailu hartzea aurreikusten da; horietatik, 35 mila dira gaur egun Arrontegi erabiltzen dutenak.

Proiektuan, azpiegitura berria intermodala izatea pentsatu da, inbertsioaren etekin sozial eta ekonomikoa handitzeko. Eskari handiena duten mugimenduak tunelera zuzenean sartzeko adarrekin proiektatu dira, gaur egun dauden biribilguneak gainezkatzea saihesteko.

Lanak erritmo onean ari dira aurrera egiten, eta, aurreikusi denez, 2023rako amaituta egongo dira.



# 5 Erabiltzailearentzako arreta

Interbiak foru-sozietate publikoaren helburu nagusienetariko bat kudeaketa eraginkorra, gardena eta erabiltzailearengandik hurbilekoa egitea da, azken batean bezeroa Bizkaiko gizarte osoa baita

Autobiderako helburuen artean, Europako estandarrik handienen barruan kudeaketa eraginkorra bermatzekoa dago, bezeroaren gogobetetasun handia eta trafikoaren eskariaren kudeaketa egokia uztartuz betiere. Gainera, hiritarrarekiko komunikazio gardena mantendu nahi da, hobekuntza- eta eraikuntza-proiektuei dagokienez.

Horretarako, Interbiakek **bezeroei arreta emateko zerbitzua** sortu du, harremanetan jartzeko bide hauek dituena:

- Bezeroentzako Arreta Zerbitzua: 900 840 048
- Posta: Kanariar Uharteen kalea 19, 1. solairua. 48015 Bilbo – Bizkaia
- Faxa: 94 405 70 01
- Web-orria: www.interbiak.bizkaia.eus

Bestetik, erabiltzaileek formatu digitalean lor ditzakete fakturak, web-orrialdearen bidez, erabiltzailea erregistratu ondoren. Zerbitzu horrekin, gainera, egindako ibilbideak kontsultatu, aplikatutako deskontuen eta dirulaguntzen berri izan, datuak aldatu, jakinarazpenak jaso... daitezke.
Bestalde, autobidean laguntzeko zerbitzua ere badago, urteko 365 egunetako 24 orduetan erabiltzaileei laguntzeko prest dagoena. Edozer gertatuz gero, autobideko laguntza-taldeak martxan jartzen dira, beharrezko laguntza emateko.
Bezeroen beharrizanei hobeto erantzuteko, Interbiakek ikerketa egiten du, erabiltzaileek autobidearen ezaugarrien gainean duten iritziari buruzkoa, erabiltzaileen beharrizanak, eskariak eta espektatibak zein diren jakiteko.

# 5.1 BEZEROARI ESKAINITAKO KOMUNIKAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZUA

## 5.1.1 DIRULAGUNTZAK ETA DESKONTUAK

167/2021 Foru Dekretuak, abenduaren 14koak, "hileko gastuaren muga" arautu du 2022rako. Horren bidez, erabiltzaileei, hilabetea amaitutakoan, bidesari gisa ordaindutako kostuaren % 100 itzultzen zaie, Bizkaiko lurralde historikoan bidesaria duten eta foru-aldundiaren titulartasunekoak diren bide-azpiegituretako edozeinetan 33,55 eurotik gorako hileko gastua (BEZa barne) egiten badute. Halaber, Araba eta Gipuzkoako lurralde historikoetan bidesaria duten bide-azpiegituretatik egiten diren joan-etorriek ere % 100eko dirulaguntza jasoko dute, baldin eta bidaia Bizkaian hasi edo amaitzen bada eta hileko gastua 50,54 €-tik gorakoa bada, BEZ barne.

Erabiltzaileak hileko gastu hori gainditzen ez badu, hilabete bakoitzeko hamaikagarren bidaiaren (11) eta hogeita bosgarren bidaiaren (25) artean ordaindutako bidesarien zenbatekoaren % 35eko deskontua aplikatuko zaio, zenbateko handienetik txikienera ordenatuta, eta bidesariaren zenbatekoaren % 45ekoa, hilabete bakoitzeko hogeita seigarren bidaiatik (26) aurrera.

### 5.1.1.1 “Hileko gastuaren muga” dirulaguntza

Bizkaian bizi diren eta erabilera partikularreko ibilgailu arina duten erabiltzaileek "ordainketa-mugako sistema" erabil dezakete. Sistema horrek % 100eko dirulaguntza ematen du onuradunak hilean 33,55 eurotik gorako gastua egiten badu Bizkaian eta/edo 50,54 eurotik gorako gastua egiten badu Gipuzkoan eta Araban, hilean 150 bidaiako mugarekin, bidesaria duten bide-azpiegituretako edozeinetan.

2022an, guztira, 298.475 dirulaguntza-eskaera baino gehiago kudeatu dira (batez beste, ia 25.000 eskaera hilean), eta, guztira, 9.100.410,24 euro erabili dira.

Dirulaguntza hau jaso duten erabiltzaileek 58,49 € euro aurreztu dituzte hilean, batez beste.

Foru-aldundiak urtean laguntza hauei bideratzen dien zenbatekoa % 6,5 igo da aurreko urtetik (8.548.661,12 €), eta herritarren bidaiak diruz laguntzeko bideratu den gehienekoa da; are, pandemia baino lehen (2019an) bideratzen zena baino zenbateko handiagoa da.

| HILABETEA | Dirulaguntzaren erabiltzaile-kop. | Dirulaguntzaren zenb. (%) |
|---|---|---|
| Urt | 12966 | 7,4 |
| Ots | 13685 | 8,9 |
| Mar | 14308 | 10,8 |
| Apirila | 13877 | 7,0 |
| Mai | 14693 | 10,6 |
| Eka | 14428 | 9,4 |
| Uzt | 12784 | 6,6 |
| Abu | 10088 | 4,1 |
| Ira | 14054 | 8,2 |
| Urr | 15649 | 9,1 |
| Aza | 3037 | 10,3 |
| Abe | 16025 | 7,6 |
| **Guztira** | | **% 100,0** (9.100.410,24**€**) |



### 5.1.1.2 Deskontuak

Abenduaren 14ko 169/2021 Foru Dekretuak arautzen ditu 2022. urterako I. eta II. motako ibilgailu astunei aplikatu beharreko deskontuak, baldin eta AP-8 autobidea, Galdakao eta Gipuzkoa arteko muga eta Bilbo eta Santurtzi arteko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea konbinatuta erabiltzen badituzte eta hilean 20 bidaia edo gehiago egiten badituzte.
erabili denean. Bi kasuetan, OBE sistema erabili behar da ordainketa-modu gisara, eta 0 tarifadun ibilbideak kalkulutik kentzen dira. Deskontua emandako lehen pausotik aplikatzen da.

2022an, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean aplikatutako deskontuen guztizko zenbatekoa 238.956,97 eurokoa izan da, eta, batez beste,

5.1.1.a Taula.

| HILABETEA | MHS + erabilera konbinatua deskontuen erabiltzaile-kop. | Deskontuaren zenbatekoa (%) |
|---|---|---|
| Urt | 967 | 8,1 |
| Ots | 1079 | 8,8 |
| Mar | 908 | 7,5 |
| Apirila | 1030 | 8,4 |
| Mai | 1225 | 10,1 |
| Eka | 1132 | 9,2 |
| Uzt | 943 | 7,6 |
| Abu | 844 | 6,8 |
| Ira | 1050 | 8,8 |
| Urr | 984 | 8,1 |
| Aza | 1138 | 9,4 |
| Abe | 889 | 7,2 |
| **Guztira** | | **% 100,0 (261.938,78 €)** |

Aplikatu beharreko deskontua % 13koa da, bi autobideen bidesariaren kostuaren gainean, noranzko bereko erabilera konbinatu denean, edo Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea soilik

hilean 964 onuradun izan dira; 2021arekin alderatuta, zenbatekoak % 2,3 egin du gora.

